

79

3 euro • 2003ko EKAINA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN
LEGEAREN 10. URTEURRENA • ZER
DIRA JANARI TRANSGENIKOAK •
SEXOLOGIA • LAGUNARTEKO HIZ-
KERA • EVLANG EUROPAR PROGRAMA



KRONIKA

Lehen andereñoentzako

Eusko Jaurlaritzaren dekretua



gaia

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEA

EAEen Eskola Publikoa onartu zela 10 urte pasa dira. Ez dira urte asko, euskal irakaskuntzaren bidea markatu du, hein batean. Horren inguruko balorazioak biltzen dira gai honetan.



elkarrizketa

ANA EIZAGIRRE, IÑAKI ETXEZARRETA, MARIJE FULLAONDO

Euskal Eskola Publikoaren Legearen iragana, oraina eta etorkizunaz aritu dira.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEAREN 10. URTEURRENA

16 elkarrizketa

MAHAI INGURUA: Ana Eizagirre, J. Iñaki Etxezarreta eta Marije Fullaondo

24 esperientzia

Zer dira janari transgenikoak?

Ikaztegietakoko herri eskolako ikasleek azalduko digute

26 ekarpena

Goazen sexologia aztertzerara eta bizitzera

28 esperientzia

Gure lagunarteko hizkera euskara da, eta zuena?

29 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

EVLANG europar proiektua

Itziar Aramaio

31 berriak

38 historiako zertzeladak


Bizkaiko institutua. Bilboko "historiko" baten erretratua

Txomin Ganborena

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Airnoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estorba, Arantxa Goiburu, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hikhasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2003/ V/30 . Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.



BADATOR

i
r
a
n
i
n
a
n



berria!

editoriala

ekaina

Ikastoletako lehen andere oak aipatuak izan dira, noizko haien eskubideen aitortpena?



Diktaduraren garai gogorrean eta hain baldintza mugatutan egindako zerbitzuaren ordaina jasotzea tokatzen zaie. Hori, jubilatzeko orduan dagokiena jasotzean gertatuko da.

Gora zuek!

Eskerrak, eskerrak egindako lan eskeragatik. Garai gogor haietan, diktadurapean egindako ahalegin handiarengatik zuei eskerrak ematea dagokigu euskal hezkuntzan murgildurik gabiltzanoi.

Askotan aireratzen ez bada ere, denok dakigu zuen lan isilik gabe ez zela lortuko gaur egun hezkuntzan euskaraz ikasteko dauden matrikula kopuruak.

Euskal Hezkuntzaren eraikuntza poliki-poliki osatzendoa. Hasiera hartako andereñoek ezarri zenuzuten oinarri sendoei esker, euskal heziketaren etxea osatzen eta edertzen ari da milaka eta milaka ikasle, irakasle, hezitzaile, guraso eta herritarren elkarlanarekin.

Urteak aurrera doaz eta haietako irakasle askok lanean darrai. Beste

asko irakaskuntza utzi eta jubilazio garaian aurkitzen da. Hau da, lana utzita, jubilatuta eta zein egoeratan?

Egungo legediaren arabera, gizarte segurantzaren 35 urte kotizatu behar da jubilazioaren %100a kobratu ahal izateko. 35 urte horiek bete ez dituztenek kotizatu gabeko urte bakoitzeko %2ko galera izaten dute beren jubilazioko diru jasoketan.

Andereño horiek egindako lana, sozialki onartua izan bada, noizko haiei langile bezala dagokien onarpena?

Pentsa liteke aitortpen hori legalki ezinezkoa dela, baina espainiar estatuan bada aurrekaririk. Apaizei, betetzen duten lan soziala dela eta, kotizatu gabeko urteak ere ordaintzen zaizkie jubilatzeko orduan. Horrela, bada, lege aldetik posible dela dirudi.

Eusko Jaurlaritzak argitaratu berri duen dekretuaren arabera, aipatu galeraren izenean, 1968. urte arte kotizatu gabe lan egin zuten irakasleei urte bakoitzeko 3.000 euro ordaintzea onartzen da.

Txalogarria da erabakia, andereño historiko haiek modu ofizialean nonbait agertzen direlako. Hala ere, hartutako neurria dagokienetik oso urrun dagoela nabaria da. Alde batetik, eta ezin beste era batean izan, EAEkoak soilik direlako dekretuan jasotzen direnak. Bestetik, ordaindutakoa dagokienaren oso zati txikia delako. Eta hirugarrenik, 1968 hartzen delako mugatzat, ikastolen egoera 1978an hasi zelarik normalizatzen.

Egindako lan soziala kontuan hartuz, noiz onartuko zaie andereñoei jada apaizei, onartzen zaiena?

kronika

Bada dekretu bat azkenaldian hezkuntza munduan ahoz aho dabilena. Orain arte LOGSE legeak ikasgelan gutxi gorabehera arlo bakoitzari astean 4 ordu eskaini behar zaizkiola esaten zuen. Orain, LOCEren jazarpenarekin, bi hezkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoetan derrigorrez gaztelania irakasgaiari 5 ordu eskaintzearen asmoa luzatu dute Madrilgo gobernutik. Anjeles Iztuetak ez du itxaron dekretu berria *“kontserbadorea, kadukatua eta elebakartzat”* jotzeko eta *“Madrilen beldurra diotela aniztasunari eta eleaniztasunari”* adierazi du. EAEan betiko sistemarekin jarraituko da, hezkuntzei lehenetasuna eta garrantzia beti eman zaielarik irakasgaien %45arekin. Hori gainera, *“mundu mailako erreferentzia”* izatera iritsi den eleanitz proiektuaren arrakastarekin garbi geratu da. Ez ote da euskara errefortzu horiek behar dituen a ?



Frankismo garaiko hasierako irakasleei omenaldia eta konpentsazioa eman diete

Malkoren bat edo beste isuri zen maiatzaren 9an Donostiako Miramar Jauregian, hara gerturatu ziren ia 200 andereñoren lana eta sufrimenduaren aztarnak agerian geratu zirelarik, nonbait. Egunak eguzki argiaren dizdirarekin batera askoren lasaigarri izango zen bestelako argiaren berri eman zuen Anjeles Iztueta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak.

Frankismo garaian, 1967-68 ikasturtera bitartean modu klandestinoan irakasle aritu zirenei eta inongo onarpen sozialik jaso ez zutenei ordainketa ekonomikoa ematea ziurtatuko dien dekretua onartu berri du Eusko Jaurlaritzak. Dekretu honen arabera, urte horien aurretik lanean aritutakoek, kurtsoko 3.000 euroko ordaina jasoko dute eta irakasle lanetan ari ziren bitartean

bestelako edozein giza aseguru jasotakoek, berriz, ikasturteko 1000 euro jasoko dituzte.

Bide batez, dekretuaren onartze ofiziala plazaratzeaz gain, omenaldi xume baina era berean hunkigarria egin zitzaien andereño saiatu haiei guztei. Hasteko, besarkadak eta aspaldian ikusi gabekoen begiradak berriro gozatzea ez zen makala izan, baina gero bideo bat ere izan zuten ikusgai. Bideo horretan, orduko zenbait ikastoletako irudiak agertu ziren eta zenbait ikasle ohik, gaur egun famatuak direnak, beraien andereño maiteei zuzendutako hitz batzuk egin zituzten. Bideoaz gain, bakoitzak opari bat ere jaso zuen ekitaldiaren sarreran, Gernikako arbolaren hosto bizia, hain zuzen ere.

Aipatzekoa da, hamar urte luzeren ondorengo prozesua izan dela dekretua onartu artekoa, lehen eskaerak 1993an hasi baitziren egiten EAEan. Eusko Jaurlaritzari 1996az geroztik ere eskaera luzatu zitzaion, baina ordaina eta errekonozimendua ez da gauzatu 2003ra arte. Angeles Iztuetak Jose Ignacio Pelaezen lanaren garrantzia gailendu zuen dekretu hau gauzatzeko garaian. *“Maitasuna, errespetua, fedea eta umiltasuna ardatz zenutelarik, gaur egungo hezkuntzaren eredu aurrerakoi izan zintzen andereño guztioi, zorionak”*.

Besteari buruzko diskurtso pedagogikoan nekez aurkituko duzu nazio zapaldu bati buruzko erreferentziarik. Estatuak erabakitakoa betetzera mugatzen da.

Paulo IZTUETA



Euskara jakitea eta erabiltzea: bi mundu ezberdin

Atera dira datorren ikasturteari begira aurrematrikulazioen behin-behineko datuak eta aipatzekoa da orokorrean B eta D ereduaren eskaerak gora egin duela. Hala ere, agerian geratu da datu horiek eta euskararen jakintza ez datozela bat bere erabilerarekin. Hori da, bederen, euskararen munduan eta irakaskuntzan dabiltzan zenbait adituk aipatu dutena

Lehenik eta behin, matrikulen gorakada berri pozgarria dela aipatzea zilegi da. Honela, D eredukoaren emaitzak Bkoak baino hobekien dira, eta era berean, B eredukoak Akoak baino hobekien. Baina, familia eta etxeko hizkuntzak, bizitokiak nahiz hizkuntzen arteko interferentziak ere eragin zuzena dute, noski, besteak beste.

Errealitatean hiriburuetara jotzen badugu, euskararen erabilera “anek-

dotikoa” dela adierazi dute adituek eta horretarako zerbait egin beharra dagoela. Besteak beste, eskola orduetako euskara ez dela aski adierazi dute.

Erabilera sustatzeko egin daitezkeenari begira, irakasleen euskara mailak landua eta goi mailakoa izan behar duela aipatu dute adituek, eta euskararen gehiegizko kontrolak kalte egiten duela ere onartu dute. Aisialdiko denbora euskararen transmisiorako aprobetxatu behar da eta eskolaz kanpoko ekintzetan ere lan asko dago.

Gazte belaunaldiak euskara balio sinboliko gisa jasotzen ari dira eta ez modu komunikatibo eta funtzional batean. Zenbait euskara taldek azpimarratzen duten, toki publikoetan hasita eta prentsa euskaldunarekin jarraituta, hizkuntza ohiturak pixkanaka aldatzen joatea dela erabilera sustatzen joateko modu bat.

Nafarroako gobernuari dagokionez, berriz, I eta J ereduaren dekretua onartzeaz gain, martxan jartzeari ekin dio, lurralde honetako euskararen egoeraren kalterako. Sortzen-Ikasbatuazek eta zenbait sindikatuk euren kezak plazaratu dituzte dekretuaren zentzu pedagogiko eza salatuz. Gainera, D eta B ereduak ez dira eskaintzen aukera bezala euskaraz hitz egiten ez den tokietan. Nola lor daiteke egoera normalizatua oinarritzko hizkuntza eskubideak etengabe urratuak baldin badira?

Bada nahiko mugimendu euskararen inguruan Euskal Herri osoan, eta Iparraldean ere jarri dira zenbait proiektu martxan euskara sustatu eta eguneroko bizitzan erabilgarria izatera iristeko asmoz.

Ildo horretatik, Seaskak komunikazio kanpainaren aurkezpena egin zuen maiatzaren hasieran. Kanpaina honi “murgiltze eredu” izena jarri diote eta euskara sustatzeko bertan murgildu behar dela esate dute norberak egin behar duen ahaleginari men eginez.

Gehiengoak ez duela euskara ezagutzen aipatu zuten eta erabilera murriztu dela. Baina, CDA soziologia elkarteko datuek adierazi dutenez, gurasoen gehiengoak beraien seme-alabek euskara z ikas dezaten nahi omen dute eta hori baikorra izateko modukoa da. Kanpainaren lagungarri, 15 urte-tik beherako haurrak dituzten 47.000 familiei liburuxka bat bidali zaie, non ikastolei eta eredu ezberdiinei buruzko informazio osoa ematen den modu erakargarrian. Seaskak “haurren gaitasunean fidatzeko” eskatzen du.

Era beran, Seaskaren hitzak Hazparneko Ezkia ikastola berriaren inaugurazioan ere izan ziren entzungai. Mixel Etxeberria lehendakariak euskal botere publikoen eta estatu frantsesaren aurkako hitzak luzatu zituen ikastolei ez dietelako laguntzarik ematen. Aldiz, Eusko Jurlaritzak eta Udalbiltzari esker onak luzatu zituzten Iparraldeko ikastolen sustatzaile izateagatik.

Bestalde, Ikas-Biren XVII. festa arrakasta handiz ospatu zen Donibane Lohitzunen.

Euskal Eskola Publikoaren Legea

G A I A

10. urteurrenean





Euskal irakaskuntzaren ibilbidea legea sortu aurretik

1993an ezarri zen Euskal Eskola Publikoaren Legea EAEn, eta 10 urte iragan ondoren gogota egiteko tartea edo denbora hartu dugu. Legea ezarri aurreko egoera, giroa eta eztabaidak gogoratzearekin batera, legea bera eta ekarri zituen edo ez zituen aldeketei so egin nahi izan diegu. Eta bidenabar, baita etorkizunari ere.

10 urte ez dira asko, baina balorazio bat egiteko lain bai. Horretan jarri ditugu hezkuntzako hainbat esparrutan dabiltzan zenbait lagun. Haste-ko, Paulo Iztueta EHUKo Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleari balorazio pedagogiko bat eskatu diegu. Jarraian, legea legebiltzarrean onartu zenez eta erabakia alderdi politikoek hartu zutenez, politikariei eman diegu hitza. Segidan sindikatuen iritzia jaso da. Eta azkenik, aldi-zikari honetako elkarriketa nagusian ere gai bera jorratu da hezkuntzan dabiltzan hiru kideren arteko mahai inguru osaturik.

Duela 10 urte jarri zen indarrean Euskal Eskola Publikoaren Legea EAEn; 1993ko maiatzaren 25a zen ikastolek publikatu edo ez erabakitzeko azken eguna. Tentsio handiko garaiak izan ziren, iritzi tea interes ezberdinek elkar jotzen baitzuten. Soka luzeko prozesua zen euskal irakaskuntzarena, aurretik ere hari asko zituena.

Praktikoki Euskal Herriak frankismo garaia arte ez zuen euskal irakaskuntzarik izan, ez Iparraldean eta ez Hegoaldean. Alde batetik eskola nazionalak zeuden eta bestetik eskola erlijiosoak. 50eko hamarkadan sortu ziren hastapeneko kimuak, baina batez ere 60ko eta 70eko hamarkadetan garatu zen euskal irakaskuntza fenomeno zabal bezala eta Euskal Herri osoan, hots, euskal lurralde historiko guztietan. Noski, lehen urrats haiek instituzioetatik eta boteretik at eman ziren; herriko sektore batek bultzatu eta sostengatutako proiektu bezala sortu zen. Hura izan zen ikastolen fenomenoa.

Pixkanaka-pixkanaka mugimendu hura finkatuz joan zen, baina boterearen legitimaziorik eta babesik gabe; are gehiago, boterearen presioaren aurka.

Hegoaldean 1978ko konstituzioa onartu zenean fenomeno berri bat eman zen: legitimazio instituzionalik ez zeukan orori irtenbidea ematen hasi zitzaien. Era guztieta-ko erakundeek irteera behar zuten: alderdi politikoek, sindikatuek... eta tartean ikastolek. Garai beretsuan Eusko Jaurlaritza eratu zen eta ordura arte Madrilgo eskuduntza ziren eskola nazionalak Gasteizko eta Iruñeko gobernuen eskuetara pasa ziren. Beraz, Eusko Jaurlaritza bere eskola publikoarekin eta ikastolekin aurkitu zen. Ikastolek euskal eskola publikoa zirela aldarrikatzen zuten eta juridikoki hala izan nahi zutela. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak bere eskola publikoa zeukan. Lehenengoen legitimazio soziala zeukaten eta legitimazio hori instituzionala bilatzeko gogo eta borondatea ere bai. Aldiz, eskola publikoak legitimazio instituzionala bazuen, baina soziala falta zitzaien, hots, euskal irakaskuntzarekiko identifikazioa.

Egoera horrek sortutako tentsioa 1980, 1981 eta 1982ko ikastola batzuen publikazioarekin baretu zen. Nekazal giroko herri txikietakoa ikastolak publikatu egin ziren,

alegia, bi eskola moten proiektuentzat aldi berean lekurik ez zegoen herrietan.

Era berean, 80ko hamarkadan Eusko Jaurlaritzak sekulako inbertsioa egin zuen eskola publikoa euskalduntzeko. Irakasle- en euskalduntze prozesu azkar bat eta A, B eta D ereduaren bitartez eskolaren euskalduntze prozesua planteatu ziren. Modu horretan, 80ko hamarkadaren amaieran, eskola publikoak, zeukan legitimazio instituzionala mantentzeaz gain, legitimazio soziala irabazi zuen. Bien bitartean, ikastolek hasieran zeukaten legitimazio soziala mantendu zuten, baina ez zuten legitimazio instituzionalik lortu.

Ikastolen, eskola publikoaren eta eskola erlijiosoaren elkarbizitza ez zen ez eroso, ez gogokoa. Beste modu batera arautzeko eta antolatzeko nahia begien bistakoa zen. Horrela, 1978an akordio politiko bat egin zen. Ikastolek eskola publiko bakarra eraiki behar zela eta hori konbergentzia prozesu baten bidez egingo zela onartu zuten. Hori egin bitartean ikastolek finantziarioa jasoko zutela hitzartu zen.

Giro horretan, euskal eskola publiko berri bat sortzeko ametsa, ilusioa, esperantza, gogoa eta indarra bildu ziren irakasle- en, gurasoen eta herritarren artean, eta hainbat ekimen, adostasun eta proposamen lortu ere bai (nagusiki SORTZEN plataforma). Boterearen aldetik, PSOE, EEK eta EAJK eskola itunerako akordio politikoa egin zuten, eta horren puntuetako bat izan zen Euskal Eskola Publikoa (EEPL).

Gaur egun EEPL dago EAEn, baina ez dago euskal eskolaren legerik.

10 urte pasa dira EEPL onartu eta indarrean jarri zela. Besteak beste, bi helburu hauek zituela esan liteke:

- 1.- Euskal Eskola Publikoa berritzea eta aldatzea.
- 2.- Ikastolek titularitate publikoa izatea.

** Zein neurritan lortu dira bi helburu horiek?*

** 10 urte beranduago, zein balorazio egiten duzu?*

Galdera horien inguruko balorazioa eskatu diegu unibertsitateko irakasle bati, politikariei eta sindikatu- etako kideei. Jarraian ikus eta irakur daitezke erantzunak.





Paulo IZIUETA

EHko Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

Euskal eskola publikoaren legea: hamar urteko balantzea

Behar bada, hamar urte ez dira asko ordutik hona lortu denaren eta ez denaren arteko alderdi desberdinez ondorio erabakigarriak ateratzeko, baina behin-behineko balantze moduko bat egiteko adina datu badauzkagula uste dugu. Guk hemen arrasto batzuk bakarrik markatuko ditugu. Ez da dena zuri, edo dena beltz epealdi honetakoa.

Ezaguna den bezala, Eusko Jaurlaritzak, 1993ko maiatzaren 25eko legearen bidez, Ikastolen mundua bitan zatituta utzi zuen, batzuk sare publikoan eta besteak pribatuan sartzera behartuz. Orduan publikatzea erabaki zutenen asmo nagusien artean, hauek zeuden: ikastetxe publikoak antolakuntzaren zein funtzionamenduaren aldetik euskalduntzea, zatiketa administratiboan gaintik Euskal Herri osoan zehar era koordinatuz bategiz jokatzea, ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-eredu autonomoa izatea, euskal curriculum garatzea. Hitz bategiz esateko, Euskal Eskola Publiko Berriaren bidean, hezkuntza sistema propioa lantzea zen, eta da, Sortzen-Ikasbatuaz elkartearen egitekoa. Ikastolen Konfederazioaren betiko helburua ere beretsua izan da, eta da, hots: euskal eskola nazionala eratzea, esparru pribatutik ari izanda, titulartate publikoa aldarrikatuz.

Hamar urte pasa eta gero, euskal irakaskuntzaren oroimen historikoko gogorarazi behar den lehen datua

da, lege hura Buesa kontseilariak gauzatu izan zela, baina Eusko Jaurlaritzaren onarpenarekin eta Ikastolen Konfederazioaren obedienciazkin, honek ere erresistentziaren aldapari ekin orduko makurtu baitzuen bere burua botere autonomikoaren aurrean. Neurri batean, jokabide hura normalizat hartzekoa ere bazen, Ikastolen aparatua administratiboa EAJkoen eskuetan baitzegoen, subentzioen politikari atxikia. Ez da ahaztu behar Ikastolen Konfederazioko buruzagi batzuk EAJko hautagaiak izan zirela.

Buesaren legearekin euskal irakaskuntzan ziklo berri bati ematen zitzaiola hasiera uste izan genuen. Usteak betetzen ari dira, orduan gauzatu zen zatiketak indarrean segitzen baitu. Alde batean ikastolak daude, eta bestean ikastetxe publikatutakoak, sektore bakoitza bere antolakuntzarekin. Bi elkarte hauetakoan artean ez da gauzatu kooperazio-lanik eta beren arteko harremanak gehienbat formalak dira. Bakoitzak bere bidea egin du, bakoitzak beren ekarpenekin eta beren hutsuneekin. Zertan aurreratu den eta zertan ez ez bederen hainbeste-, zehazteko orduan, mailak eta mailak bereizi behar dira.

Lehenik, hizkuntza ereduie dago-kionez, euskararen ildo nola doanjakiteko, ia beti lehen aldiz matrikulatzen diren Eskolaurreko haurren kopurua neurtzen da. Hori batetik, eta bestetik, B eta D ereduak bateratuta ematen dira. Egia da, euskalduntze-tasa aldagai horien arabera neurtuz gero, EAEn B eta D ereduaren ikasten zutenen indizea 1982-83 ikasturtean % 48koa zela Eskolaurrean, % 19ko OHOn, % 8koa UBIn, % 3koa Lanbide-Eskolan, eta handik hogeitaz urtera, 2001-2002 ikasturtean, nabarmenki igo egiten direla indize horiek, Haur-Hezkuntzan % 77koa izanik, Lehen Mailan % 66koa, DBHn % 55ekoa, Batxilergoan % 38koa eta Lanbide-Eskolan % 15ekoa. Administrazioak emaitza horiek erakusten ditu. Dena den, esan dezagun 30 puntutik gorako igotzea hori gehienbat lehen hamarkadan eman zela, ez Euskal Eskola Publikoaren legea finkatuz gerozkoan.

Baina bada indize horiek irakurtzeko beste modu bat ere, euskarazko irakaskuntzaren egoera zuzenago is-

latzen duena, eta da jakitea ea zenbaterik bukatzen dituzten obligaziozko eskolatzea eta goiko zikloak D ereduaren. Noski, euskalduntzea eredu horretara mugatuz gero, indizeak asko apaltzen dira, 2001-2002 ikasturtean DBH euskaraz hutsean bukatu zutenak % 35,9 bakarrik izan baitziren, Batxilergoan % 36,9 eta Lanbide Eskolan % 11,3. Uste baino defizita handiagoak daude, beraz, azken ziklo horietan. Garrantzitsua da euskarazko irakaskuntza B eta D ereduaren zenbat haurrek hasten duten jakitea, baina askoz erabakigarriagoa gertatzen da beren ikasketak D ereduaren zenbaterik egiten dituzten egiaztatzea, azken hauek bakarrik izango baitira euskararen erabiltzaile potentzialak. Beste datu hau ere kontuan hartu beharrezkoa da: indize horiek ahulduz doazela EAEko Administrazioetik besteetara, alegia. Nafarroan, adibidez, 1999-2000 ikasturtean, % 17 ikasle zebiltzan DBHn eta Batxilergoan, berriz, 13 besterik ez.

Bigarrenik, goian aipatu diren bi maila horien arteko bereizketa egin eta gero, emaitza positiboan mailan aipatzeko da euskarazko irakaskuntzak orokorrean sare publikoan egin duen gorakada. Oinarritat Hego Euskal Herriko 1999-2000 ikasturteari dagozkion datuak hartuta, zehazki DBHn, egiaztatzen da ikastetxe publikoaren euskalduntze-tasa pribatuetakoa baino dezente garaiagoa dela % 57,8rekin B eta D ereduaren, eta diferentzia hori areagotu egiten dela, batez ere D ereduaren, 12 puntuko aldearekin. Datu honek badu bere garrantzia, baldin kontuan hartzen bada DBHko ikasle gehienak (% 54) ikastetxe pribatuetakoa joaten direla. Badirudi, beraz, euskal eskolaren bultzada gehienbat sare publikotik doala, oraingoz bederen bai, nahiz ez dugun elementu aski prozesu horretan ikastetxe publikatuek zenbaterainoko eragina izan duten jakiteko.

Hirugarrenik, emaitza positiboan ondoan, hutsuneak ere ageriegia dira ez ikusteko. Kalitatezko irakaskuntzan oinarrituta, Ikastolek gora egitea espero zen, baina ez dirudi aparteko hazkunderik eman denik. Egia da, Buesaren legeaz geroztik, sortu dira ikastola berriak, hiruren bat edo, Bea-



sain, Azpeitia eta Elorrion, baina horien sorrerak barne-liskarren barruan kokatu beharreko arrazoi koiunturalei dagozkienak direla esango genuke. Bestalde, titularitate publikoa lortzeko itxaropena ihartutzat eman daiteke. Orobat, ikasketxe publikatuen sektorean ere jadanik galdutzat eman daitezke ikastolak izan zireneko garaian zituzten oinarrizko zenbait elementu, hala nola irakasleen egonkortasuna, irakasleak hautatzeko ahalbidea eta curriculumaren gaineko esku hartzea. Funtzionamenduaren aldetik, beraz, euskal irakaskuntzan azken hamar urte hauetan bide aski autonomia egin duten lau sektore desberdinu koexistitzen direlakoan gaude: sare publikoan, tradizio zaharreko ikastetxe publikoak eta publikatuak, eta sare pribatuan, tradizio zaharreko pribatuak eta ikastolak.

Laugarrenik, datu horiek eskuan, ondoko hiru ondorio hauek ateratzen ditugu:

Bat: Euskal irakaskuntzak duen oinarrizko arazoa, lehen bezala orain ere, pedagogikoa baino askoz harago politikoa dela, zerbait estrukturala, alegia. Ez da dena lege-kontua, baina ukazina da botereak bere kontrola ezartzen duela. Euskal irakaskuntzak egiturazko arazo politikoak ditu, euskal lurraldea maila juridikoan zatituta egoteak euskal kulturgintza eta euskal irakaskuntza nazio-proiektu bateratu baten gerizpean eta era koordinatu batez garatu ahal izatea ezintzen baitu. Hola edo hala, egungo egoera honi bukaera eman behar zaio. Euskal Herriko klase politikoaren hutsune larriak garbiki islatzen dira hezkuntz-mailan ere. Euskal Herriko Administrazioetan horrelako desoreka egoitea, Nafarroa eta Iparraldearen ka-

suan bederen garbiki, lege-mailako diskriminazioari zor zaiola jakiteko aski da Arabara begiratzea, beste biak baino erdaldunagoa den eskualde honetan, 1999-2000 ikasturtean, DBHn D ereduaren zebiltzanak % 22,2 baitziren, Nafarroan baino ia 5 puntu gehiago.

Bi: Hezkuntza elebidunaren politika auzitan jarri beharra dagoela, baitetik, gizarte-eskeari erantzuten ez diolako eta, bestetik, bigarren mailako irakaskuntza bukatzean ikasle guztiak euskalduntzea lortzen ez delako. Azken arrazoi hau da garrantzitsua, EAEn indarrean dagoen legeak, hizkuntz ereduak ezartzean, bete ezin dezakeen zerbait eskaintzen baitu. Iruzurra eginez segitzen du, oso ondo baitaki ikasleria euskalduntzeko eredu bakarra D eredu dela, ikastoletan erabili izan den betikoa. Elebitasunak ez du balio, elebitasunean bizi den komunitaterik ez dagoelako. Eta ez dago, nonahiko hiritar gehien gehienak, eleaniztunak izan ala ez, beren eguneroko bizitzan elebarrak direlako. Horrela Espainian bezala Frantzia, eta Europako beste estatuak.

Eskoletan euskarazko irakaskuntza ziurtatu ez, eta, gainera, eleaniztasunaren aldeko egitaratuetan atzerri-hizkuntzak -ingelese, batik bat- bultzatzeari oinarri sendorik ez diogu ikusten, ez bederen euskarazko irakaskuntza oraindik gutxiengo-egoeran aurkitzen den ikastetxe publiko zein pribatuetan. Ikastoletan, agian, besterik litzateke, hauetan kalitatezko hezkuntzaren xedeetako bat ikasle eleaniztunak sortzea izan baita, berez zerbait aberasgarri dena maila pertsonalean eta, orobat, errentagarria gizarteko harremanetan. Baina aukera

horrek euskarazko irakaskuntzaren kalitatea lermatzea suposatuko lukeen neurrian, handik eta hemendik entzuten gatozen bezala, eleaniztasunaren eredu hori ere auzitan jarri beharrekoa izango litzateke. Gure ustez, oraindik goizegi da orain arteko emaitzak behar bezala aztertu eta baloratzeko.

Hiru: Testuliburuaren edukari buruzko azterketa desberdinek erakutsi dutenez, azken hamar urte hauetan egon den hutsunerik larriena, agian, euskal curriculumaren esparruan egon dela, eta dagoela, horietan lurraldez zatitu eta kultura folklorikoz jantzitako Euskal Herria islatzen baita. Nortasun nazionalik ez duen herri baten irudia da horietan eskaintzen dena. Eta neurri handi batean hori horrela gertatu da, azkenaldian atzerriko argitaletxeak ere hemengo merkaturian indar handiz sartu direlako itzulpenen bidez, tarteka-marteka moldaera batzuk eginez. Oso urruti gaude euskal curriculumaren nondik norakoa diseinatu eta lantzetik, testuliburuaren edukietan LOGSEk berak ahalbidetzen duenaren laurdena -%11 inguru- besterik ez baita betetzen. Euskal hezkuntza-sistema nazionalaren oinarria euskal curriculumaren baitan aurkitzen da. Bada garaia hezkuntzako arduradunek arazo espezifiko hau seriooki eta sakonki aztertzen has daitezten, erakundeko eta gizarteko egileekin bat eginda, eta ez orain arte bezala, Ikastolen mundua alde baitetik eta Administrazioarena bestetik. Euskal curriculumak bakarra izan behar luke, hots, nazionala. Hau da, ez besterik, euskal hezkuntza-sistema nazionala eraikitzen joateko bidea, azken hamar urteko ibilaldiak irakatsi diguna.



Luis Mari BANDRES

EAJ. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatua

Egindako galderari erantzuna behar den bezala eman ahal izateko, orain dela hamar urte geneukan eskolaren egoera nolakoa zen gogoratu behar da. Mendebaldeko herrialde normalizatu guztietan bi eskola mota izan dira XX. mendean zehar, publikoa eta pribatua, hain zuzen. Gurean, berriz, eta normalizatuta ez zegoen heinean, hiru eskola mota geneuzkan: erdarazko nolabait betiko eskola publiko eta pribatua, al-



Isabel CELA

PSEko Hezkuntza arduraduna

Euskal Eskola Publikoa berri eta aldatu

1993an onartu zen Euskal Eskola Publikoaren legea 1992an indar politikoaren eta sozialaren artean sinatutako Eskola Itunaren fruitua izan zen, zeina Fernando Buesak zuzendutako Hezkuntza Sail Sozialistaren inizatiba izan zen.

Lege hark, Euskal Eskola berritzeaz

de batetik; eta bestetik, batez beste orain dela hogeita hamar urte edo hasitako ikastolak, euskaraz, noski.

Egoera hura ez zen desiragarria, ez eta normala ere. Urte haietan zehar ikastola gehienek publikoak izateko beren behin eta berriro adierazi zuten. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak hiru ereduena plana indarrean jarri zuen, hots, A, B eta D ereduena. Horrela, urteak joan eta urteak etorri, sare publikoan eta pribatuan zenbait ikastetxetan A ereduarekin jarraitzen zuten bitartean, besteetan B eta D ereduak jarri ziren martxan. Horrekin batera, ikastola ereduak aurrera jarraitzen zuen. Beraz, eta besteak beste, nolabaiteko nahaste-borraste hura zuzendu nahirik, Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu eta indarrean jarri genuen.

Alde batetik, lege haren bitartez ikastolei titularitate publikoa izateko aukera eman zitzaion eta batzuek, egia esan, alde aurretik pentsatzen eta esaten zenaren aurkako bideari ekin zioten, hots, publikotasunari heldu beharrean nahiago izan zuten pribatu izatea; beste asko, aldiz, publiko bihurtu ziren.

gain, Euskal Hezkuntza bere osotasunean eraldatu du eta Eskola Publikoa erreferentziaz hartu du.

Lege honi jarraiki, eskola plurala, elebiduna eta demokratikoa daukagu, euskal gizartearen zerbitzura dagoena eta sozialki eta kulturalki errotua dagoena.

Dena dela, badaude Legean biltzen diren eta garatu ez diren zenbait alderdi.

Bi aipatuko ditut. Lehenengoa ikastetxeen autonomiari dagokiona da. Oraindik ikertzeke eta gauzatzeko dago zentroen autonomia, eta ez pedagogikoa eta antolakuntzako soilik, baita ekonomiko-finantzieroa ere. Garapen horrek, zalantzarik gabe, Euskal Eskola biziagoa edukitzea ahalbidetuko du bere eskaintza euskal herritarrei gerturazterakoan.

Bigarren alderdiak ekitateari egiten dio erreferentzia. Gaurkoz, Eskola Publikoak, praktikoki berak bakarrik, ezberdintasun guztiak berdintzen ditu

Baina bide bat edo bestea hartu ondoren, sarea, alde horretatik behintzat, normalizatuta gelditu zela esan beharra dago. Beraz, helburu hori eta ez ares-tian jarritakoa, hau da, "ikastolek titularitate publikoa izatea", erabat lortu zela esan dezakegu.

Bestalde, izandako uztarketaren bitartez, hots, ohiko eskola publikoaren eta zenbait ikastolaren artekoa, gehi legean aurreikusten zen zenbait urratsen bitartez lortutako Euskal Eskola Publikoa orain dela hamar urtekoa baino askoz hobea, modernoagoa eta herrian errotuagoa delakoan nago.

Beraz, orain dela hamar urte hartu genuen bidea guztiz egokia izan dela pentsatzen dut, eta gaur egun gure Herrian (Nafarroa eta Iparraldea alde batera utzita) eskola egoera normalizatuan izateaz gain, gurasoen borondatearen arabera, gure hizkuntza propioan ikasteko sare publikoan nahiz pribatuan aukera badagoela aitortu behar dugu, bai eta kalitate handiko mailarekin ere.

aniztasuna integratuz. Ia Premia Berezikoko Heziketa eta Inmigrazio guztia Eskola Publikoan kontzentratzen da. Diru publikoz mantentzen diren zentroen artean banatu beharko litzateke aniztasun hori, eta erronka izaten jarraitzen du horrek.

Ikastolei titularitate publikoa eman

Legearen zazpigarren xedapen gehigarriaren arabera, hiru hilabeteko epea irekitzen zen ikastolen eta eskola publikoaren konfluentziarako. 1998ko Konfluentzia Legearen babesean, hainbat ikastolak hitzarmenak sinatu zituzten garai hartan Jose Ramon Rekaldek zuzentzen zuen Sail Sozialistarekin, eta, hitzarmen horien arabera, Eskola Publikoaren legea onartu ondoren aukera egitekotan gelditu ziren.

Praktikoki ikastolen erdia sare publikora pasa zen eta balantzea positiboa da. Bi eskolen kulturak herriaren zerbitzura dagoen kultura bakar bat bilakatu ziren.



Tasio ERKIZIA

1993an Herri Batasunako Hezkuntza arduraduna

Iruzurra eta atzerapauso

1993. urtean Baskongadetako Parla-
mentuak onartu zuen legea iruzurra izan
zen euskal gizartearentzat eta Euskal Esko-
la Nazionala eraikitzeko prozesuan, berriz,
atzerapauso nabarmena. Iruzurra izan zen,
denborak begien bistan utzi digulako ustez
bere baitan jarri zituzten helburuak faltsuak
zirela. Euskal Eskola Publikoaren Lege gisa
aurkeztu zuten, baina funtsean "ikastolen
mugimendua zatitu eta desegiteko ahalegi-
na" dilakatu zen. Beraz, hamar urteren bu-
ruan, bere garaian egin genuen iragarpena

zoritarrez bete egin dela aitortu beharrean
gara: Eskola Publikoa ez da hobetu baina,
aldiz, ikastolen mugimenduarentzat han-
katrabatze galanta izan da.

Basgongadetak Eskola Publikoak ez
du hobekuntza nabarmenik ezagutu, asko-
tan aipatu arren Lege hark inoiz ez zuelako
garapenik izan. Hitzetik hortzera erabili
zen **eskolaren autonomiari** buruzko lege
propioa argitaratzeko aukerak ematen zi-
tuela, baina errealtate gordina zera da:
inoiz ez dela argitaratu. Eta gauzak oso argi
gelditu ziren urte gutxira, PSOEek berberak
estatu osorako balio zuen Lege Organiko
berria argitaratu zuenean, hain zuzen ere
LOPEGCE deitu zutena, haren arabera ikas-
tetxeen funtzionamendua lurralde guztietan
berdina izango den. Hainbat Eskola Pu-
blikotan aurrerakuntzak bideratzen dirau-
tela? Esperientzia berriak abian direla? Du-
darik ez dago, baina ez legeari esker, lege e-
ta oztopo guztien gaintik, irakasleen eta
gurasoen eraginagatik baizik.

Eskola Publikoan lege hark ez zuen
eragin positiborik izan. Egunerokotasunak
argi utzi digu lege hori ez zegoela Eskola
Publikoaren **berrikuntzarako** pentsatua
eta egina. Ez da nabarmendu inolako alda-
keta edo hobekuntzarik ez **autonomian**, ez
bere barne funtzionamenduan, ez irakasle-

en estatusen, ez gurasoen partaidetzan, ez
ikasleen protagonismoan.

Ikastolen mugimenduari dagokionez,
aldiz, legeak eragin zuzena izan zuen. Ika-
stoletan izugarritzko nahasmena, enfren-
tamentuak, egonezina eta zatiketa latza sortu
zituelako. Lege hark ez zuen Ikastolen **izae-
ra propioa** errespetatzen. Soilki, dagoensare
publikoan integratzea proposatzen zuen. Ez
zegoen sare ezberdinen arteko konbergen-
tziarik, proposamena ikastolen asimilazioa
onartzea zen. Hainbeste urtean egindako bi-
de eta sare propioa eraikitzeari uko egin eta
Baskongadetako Administrazioak kudea-
tzen duen Espainiako Estatuaren sare publi-
koan sartzea proposatzen zitzaien. Baina
hori bai, bi hobekuntza nabarmenekin: **gu-
rasoek ez zuten ordainduko ezer eta ira-
kasleak funtzionario izanen ziren**.

Teorian, atxikimendu libre eta bolon-
dresa zena, praktikan txantaje izugarria
izan zen. Zenbait ikastoletako egoera
ekonomikoak eta beste hainbestetan ira-
kasleen interesak eragin zuzena izan zuten.
Eztabaida oso nahasturik egon zen interes
pertsonalak eta ikuspegi pedagogikoak
guztiz gurutzatuak egon zirelako. Buesa-
rentzat lorpen handia, baina, aldiz, Euskal
Hezkuntza Sistema Propioa bat eraikitzeko
bidean atzerapausoa.



Martin ARANBURU

Erako kidea

Euskal Eskola Publikoaren Legearen az-
terketa egiteko garaian balantze positiboa da
nagusi Eusko Alkartasunaren aburuz, nahiz
eta, Eak lege honekiko izan duen erlazioa be-
rezia izan den, alde batetik legearen egile izan
ez zelako eta bestalde, azken urteotan legea-
ren kudeatzaile nagusia izan delako.

1993an, orduko legealdian, Eusko Al-
kartasuna ez zen gobernu kidea eta PSE
alderdiaren erantzunkizun zuzena zen Hez-
kuntza Saila, bera izan zelarik nagusiki lege-
ari bultzada eman zion alderdia. Bere ga-
raian, legearen beharra ulertzen genuen, Es-
kola Publikoaren kalitatezko hazkuntzara-

ko ezinbestekotzat jotzen baikenuen abia-
puntu funtzioa izango zuen araudi berri bat
arautzea, hots, eskola publikoaren lege bat.
Finean, bat egin genuen lege bat egitearen
beharrarekin, nahiz eta Legebiltzarreko di-
namikak berak alderdiei inposatzen zigun
egin beharraren ondorioz, oso kritikoak izan
ginen legearen edukiaren hainbat alderdiren-
kin. Halere, orokorki hezkuntzaren eta ze-
hazki eskola publikoaren garrantziaz jabe-
turik, Eusko Alkartasunak jarrera arduratsua
izan zuen, gure aburuz ezinbestekoak ziren
alderdiak mahai gaineratuz eta azterketak,
planteamenduak eta kritikak objetibotasu-
nez eginez.

Ukaezina da, halere, lege horren kudea-
tzaile nagusiak izan garena, Eusko Jaurlari-
tzako Hezkuntza Saila gure esku izan baita
azken legealdietan. Eta legearen analisisa e-
giteko garaian, azterketa modu eraginkorre-
na, nire iritziz, Eskola Publikoak izan duen
garapenaren azterketaren berri ematea da.

Azpiparratu beharreko lehendabiziko
alderdia zentroen autonomia da. Zentzu
ekonomikoan, zein pedagogikoan, zein an-
tolakuntzakoan zentroen autonomia erabat
garatu da azken hamar urte hauetan. Perso-
nalgoaren gaia alde batera utziz, autonomia-
ren garatze orokorra eman da ondorio posi-
tibo nagusi bat ekarri duelarik: kalitatea.

Kalitatea da, hain zuzen, azpiparratu

nahi dudana bigarren alderdia. Estatuan ez da
hemen ezagutzen dugun eskola sistemaren
parekorik kalitate baremoak kontuan har-
tzen baditugu, eta lorpen horretan, herri ho-
nek hezkuntzan dituen profesionalen saritu
ezineko lanaz gain, Euskal Eskola Publi-
koi onartu egin behar zaio garapena posible
egin duten hainbat tresna eman dizkiola
hezkuntzari. Sistemaren diagnostikoa zuz-
ena izan zen eta baita garapena bideratuko
zuten baldintzen ezarpena ere.

Euskalduntzeak ere oso garapen posi-
tibo ezagutu du. Ez ditut datuak emango, aski
ezagunak dira eta, baina ukaezina da herri
hontako kulturaren altxorra dugun euskararen
zuzen hezkuntza sistemak duen ezinbesteko
funtzioa. Eta ikuspegia galdu gabe, garai har-
tan hezkuntza euskararen hedapena zein
zen ahantzi barik, zorientzeko da euskararen
ezagutzari buruz gaur egun ditugun datuak.

Parte-hartzeaz bi hitz esan nahi nitzuke,
aipagarria baita eskolako kide diren guztien
arteko parte-hartzeak, interlokuzioak eta in-
terakzioak sakondu egin direla. Zaila da, ha-
lere, Eskola Publikoaren Legeak merezi
duen sakontasunarekin azterketa bat egitea
artikulu baten bidez, baina azken hamar ur-
te hauetan egindakoak hurrengo hamar ur-
teetako abiapuntu berri bat eskaini digu ka-
litatezko hezkuntza eleanitz eta moderno
bat lortu ahal izateko.



Jesus Mari LARRAMENDI

ELA

Hamar urte igaro dira 1993ko otsailan Gasteizko Legebiltzarkideek Euskal Eskola Publikoaren eta Unibertsitateaz Kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Legeei oniritzia eman zietenetik.

Orain, irakaskuntza alorreko arduretatik at egonik, eta legeztatuari eta bere ondorioei gainbegirada labur bat eginik, zera aipatuko nuke:

Alde batetik, bere garaian salatu genuen eztabaida irekirik eza, zahar berria den joera dela, zeren eta tamalez, gaur egun ere, Euskal Herriko arduradun politikoekin ditugun eztabaidetan antzeko joerak salatu beharrean aukitzen baikara.

Bestalde Lege haietan onarturiko eta betetzeke geratu diren bide batzuk mentatu nituzke: bi Hezkuntza Sare geratuko zirela azpimarratzen bazen ere, onerako edo txarrerako, lehenik zeuden hirurak mantendu direla; sare pribatu kontzertatuko langileen baldintzak publikakoekin parekatzea aldarrikatzen bazen ere, oraindik lan baldintza kaskarragoetan mantentzen direla; edota euskalduntze prozesuan aurrerapauso nabariak eman

badira ere, asmoak betetzeke daudela.

Ezin da ahaztu gogoeta honetan ikastolei irekitako publikazio aukeraren inguruan sortu ziren gatazkak batere zentzurik gabekoak zirela, zeren eta nabari geratu da, niretzat behintzat, euskara maila, metodologia aurrerakoiak eta a-bar mantendu egin direla, eta bide batez, ikastetxeen beraien iraupena ziurtatu.

Azkenik, ez nuke bukatu nahi zera esan gabe: bere garaian lege ausartiagoak eskatzen genituela, aukera zegoelakoan. Haatik, legeak onartu zituztenek ez ziguten kasurik egin, eta orain aurrerantz jotzeko dauden zailtasunez gain, Madrildik -hemengo zenbaiten laguntzarekin- ditugun mozketen aurrean askoz ere egoera larriagoan gabilta.

Batzuei gehiago edota beste zenbaiti ez gustatu nik diodana, horrela azaltzen dizkizuet nire gogoetak, laburki bada ere.



Belen ARRONDO

STEE-EILAS

Orain dela hamar urte, Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu zenean, irakaskuntzako partaideen artean eztabaida luzeak eta sakonak izan genituen. Gaiari buruzko gogoetak askoz ere lehenago hasiak ziren. Legeak, ez zuen asetu gure nahia eta hutsune ugari zeudela argi zegoen, baina hala ere, batzuek, irakaskuntza Publikoa indartzearen alde egin genuen apostua. Prozesu hartan, hiru probintzietako ikastola ugari eta ikastetxe pribatu batzuk sare publikora joan ziren.

Urte hauetan, Eskola Publikoak izandako garapena baloratzerakoan, alde

onak, ez hain onak eta alde txarrak ikusten ditut. Zaila da sistema honen azterketa osoa laburbiltzea eta horregatik atal batzuk soilik aipatuko ditut.

Zalantzarik gabe, gaur egungo Eskola Publikoa orain hamar urte genuena baino euskaldunagoa da. Euskalduntze bidean pauso garrantzitsuak eman dira, azken urteetako matrikulazio datuak eta irakasleen euskalduntze kopurua ikustea besterik ez dago. Irakaskuntzan, euskalduntze prozesuak aurrera egin badu, beste eragile batzuen artean, eskola publikoari esker izan da, eta zalantzarik gabe, irakasleek eta langileek egindako ahaleginei esker. Maila honetan, sare publikoa sendotu eta indartu egin da.

Ikastetxeen Autonomia, legean jasota zegoena, garatu gabe dago eta hori eskoletan nabaria da. Urrats txikiak eman dira, baina gauza asko daude oraindik, non administrazioaren erabakiak, eskola komunitatearen iniziatibak eta erabakitzeko aukerak baldintzatzen duten. Nire ustez, aurrerantzean, autonomia da erronka garrantzitsuenetariko bat.

Irakasleriaren egonkortasun ezak, gehienbat herrietan, herri txikietan, arazo izaten jarraitzen du. Betidanik defendatu dut irakasle taldearen egonkortasunaren garrantzia edozein lan egitasmo

aurrera eramaterakoan. Beharrezkoa da plantila egonkortzea eta horretan ardura berezia du Hezkuntza Sailak hainbat urteetan gai honen inguruan izandako jarraera.

Egunetik egunera lege uniformizazioa eta zentralista gehiago datozkigu Madrildik eta horrek ere baldintzatzen du hemengo hezkuntza sistema osoa, baina sare publikoa baita pribatua (azkenekoa Kalitate Legea deiturikoa).

Komunitate Autonomoko instituzioetatik, Hezkuntza Saitetik, ez dago benetakoko apusturik eskola publikoaren alde. Batzuetan irizpide ekonomizistak soilik erabiltzen dituztelako eta askotan irakaskuntza pribatuaren alde jokatzeko dutelako. Azken adibidea 0-3 urteko etaparekin gertatutakoa da.

Baina, hala ere, eta zuen galderetari bati erantzunez, Eskola Publikoak aurrerapauso garrantzitsuak eman arren, etorkizunean erronka ugari dituela uste dut.

Prozesu hartan, arrazoi ezberdinak erabiliz, ikastola batzuk ez ziren publikatu eta bere bidea jarraitu zuten. Hala eta guztiz, hamar urte geroago, Eskola Publikoak Hezkuntza Sistemaren ardatz nagusia izan behar duela pentsatzen jarraitzen dut.



Joseba ARIN

LAB

Hezkuntza alorrean hiru sare egoteak, bata osorik euskalduna eta Euskal Herri osoan hedatuta, konpondu gabeko arazo baten isla zen, eta hala da oraindik ere. Ez dut uste Autonomia Erkidegoko garai hartako agintari politikoeak, Legea egiterakotan, zuek esandako helburuak zituztenik.

a) Aldatu eta berritu da Eskola Publiko Autonomia Erkidegoan?

Aldaketa ia bakarra kuantitatiboa izan da. Ikastola batzuk sare publikoan sartzean, ikastetxe eta irakasle euskaldunen kopurua handitu egin zen eta hori onuragarria

gertatu zen ordura arte Eskola Publikoan eginiko ahalegina sendotzeko eta indartzeko.

Eskola publikoan irakasle, eta aita ere bai naizen aldetik, esan behar dut lege horrek ez duela aldaketarik ekarri. Administrazioarekiko betiko mendekotasunaz funtzionatzen da orain ere. Ikastetxeen autonomia oso eskasa da. Harrigarria egiten zait langileen estatus zaharkitua eta egonkortasun eza (edozein eskola-proiektu serio eta sendo lantzeko ezinbestekoa dena); milaka interinokun funtzionatzen duten arren, ikastetxeek hitzik ere ez izatea kudeaketa horretan.

b) Ikastolek titularitate publikoa izatea?

Juridikoki ez zitzaizkion ikastolei aukera berririk eskaini, bi eredu zaharren artean aukeratu beharra baizik. Ikastolak zatitu egin ziren, batzuek sare publikoan sartzea eta besteak titularitate pribatuarekin jarraitzea erabaki zuten. Administrazioak eta politikoeak berriro ere antzutasuna erakutsi zuten Euskal Herrian bizi zen errealitate bati irtenbidea eskaintzeko orduan, bai Autonomia Erkidegoan ere, hezkuntza eskumenak zituzten arren. Eskumenak edo kudeaketa soila?

Balorazioa

Lehen datorkidan hitza frustrazioa da, aukera galdua. Euskal Herrian herri borondatearen bidez sortu diren beste hainbat ekimenekin bezala honekin ere, politiko-agintariek, herritarren indarrak kudeatu ordez zaramara bota zituzten. 1993an ikastolak desagertuko zirela erabaki zuten, eta legez egin zuten. Publikatu ez zirenak, berriaz, zigortu egin dituzte.

Ikastoletan hainbat urtetan eskola euskalduna, herritarra, berria, Euskal Herrikoa, bertako nahi eta beharrei egokituak eraikitzen, kontraesan guztiekin egindako bideazatiketa mingarri batekin amaituztat eman nahi izan zen. Hala ere ez zuten lortu; gogo horrek bizirik dirau. Geure hezkuntza propioa garatzeko ditugun mugak nabarmen gertatu ziren orduan, eta are nabarmenago azken urteotan; Madril ek ztula egin duten bakoitzean, Unibertsitate legea, Kalitate legea, Lanbide Heziketa, Curriculumak, ikasmaterialgintza... Jaurilaritzak aurpegia ezkutatu besterik ez du egiten.

Berriro ere herri ekimenen bidez "Gunea", "Bilgunea"... jarraitu beharko diogu Euskal Herriak behar duen eskola propioa eraikitzeko lanari, bakoitzak bere lekutik.



Juanma ARAMENDI

CCOO

Geurea, euskal eskola publikoa

Hamar urte igaro dira Recalde eta Buesa Hezkuntza sailburuen ekimena medio, euskal gizarteak geure hezkuntza sistema "propioa" garatzeari ekin genionetik. Estatu mailan LOGSE abian zen jada autonomia erkidego gehienek kontsentsuari esker, Euskadi barne. 1988. urtean ikastolen konfluentziarako legea onartua zuen Eusko Legebiltzarrak. Eta kontsentsu giro horretan, PNV, PSE eta EEK "Eskola pakturako akordio politi-

koa" sinatzea lortuz euskal hezkuntza sistemen oinarri gertatuko ziren ondorengo planifikazio, finantziario eta euskalduntze esparruetan garatu beharreko ekimena adostea lortu zuten.

Kontsentsutik at geratu zen talde politikoa, hain zuzen EA, 1995. urtetik aurrera Lege horren gestioaz arduratu zela gogoratzea komeni da, horrela, lege horren aurkaririk nabarmenatariko bat, Inaxio Oliveri jauna, osterasailburu izango zelarik.

Hamar urte hauetako ibilbide honean EEPk patroiz politikoen eragin bat baino gehiago jasan behar izan ditu; hots, ikastolekiko lehentasunak mantentzean, eskola mapa ustel bat finkatzean, eskainitako finantziarioaren truke sare ezberdinen arteko matrikulazio kuoten desoreka sare pribatuaren mesederako bilakatzen ustean, edota azken aldi honetan Iztueta andrearen ekimenari esker 0-3 urteko hezkuntza eskaintza ikastetxe publikoetan bermatzeari uko egitean.

EEPko irakasleriari dagokionean ere, hamar urte hauetako gestio beltz honen ondorioz, prekaritateak egin duen gora-

kada nabarmena gertatzen da, plantillaren %25 behin-behinekoa delarik. Egia esateko, hiru sindikatu abertzaleen babes osoa izan dutela aitortu beharra dago baita ere.

Gestio ilun horrek, ordea, ez du inolaz ere baliogabetzen geure hezkuntza sistema propioa garatzeko, gaur egun egun oraindik, baliogarria gertatzen den baliabide bat. Lamien kantuekin zorabiatu gabe, pluraltasuna eta elebitasuna bermatzeaz gain, sozialki errotutako eskola demokratiko bat garatzeko baliabide bat da EEP legea. Horretarako, ezinbestekoa dira, noski, kontsentsua eta politika integratzaileak. Gizarte plural, demokratiko, elebidun, integratzaile eta solidario baten euskarri gerta daiteke eta gertatu nahi du Euskal Eskola Publikoak, nahiz eta bere arduradun politikoeak, Anjeles Iztueta buru, bere itomenerako ekimenean gogor jardun eguna joan eta eguna etorri.

Hasitako lekutik amaitzeko, agur eta ohore Euskal Eskola Publikoak sustatzeko lanaren ordaina, terroristen balei esker, beren larritik pagatu behar izan duten Recalde eta Buesa jaunei.

Mahai ingurua

EEPL

Ana Eizagirre
Iñaki Etxezarreta
Marije Fullaondo



Gizarte eragileek nahiko argi
esan dugu gauzak aldatu nahi
ditugula



Mahai ingurua

EEPL



Euskal eskolaren proiektu bat egin nahi bada eta egoera juridikoa, politikoa eta alderdi politikoaren klabe kulturalak aldatzen ez diren bitartean, ezinbestekoa da erreferentzia eskolar bat edukitzea, eskola beste era batera egin litekeela frogatzeko, eta hori da ikastolen mugimendua

J. I aki Etxezarreta

Hezkuntza barrutik ezagutzen eta bizitzen dutenei hitza eman nahi izan diegu Euskal Eskola Publikoaren Legearen inguruko iritzia eman dezaten. Legearen aurrekariak, legea bera eta etorkizuna izan ditugu hizpide mahai inguruan bildu ditugun hiru lagunekin. Ana Eizagirre Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteko lehendakaria izan da gurasoen ikuspegiaren lekuko. I aki Etxezarreta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko zuzendariak, berriz, ikastolen mugimenduari ahotsa eka-ri du. Eta Marije Fulla-ondo Sortzen-Ikasba-tuaz elkarteko kideak publikatu ziren ikastolen alderditik begiratu du.

Legearen aurreko eztabaidetan parte hartu zuten hirurek eta legearen ezarpena zein ondorengo 10 urteak modu ezberdinean bizi izan dituzte. Ezbairik gabe, zeresana badute.

Euskal Eskola Publikoaren legeak, besteak beste, bi helburu zituen: euskal eskola publikoa berritzea eta ikastolak publikifikatzea. Ados al zaudete horrekin?

Ana Eizagirre.- Ordura arte Euskal Autonomia Erkidegoan ez zegoen legerik, lehenengoa izan zen, eta zentzu horretan, ez nuke esango berritzeko zenik. Berritzea sistema orokor batean hainbat gauza egiteko gaitasuna edukitzea izango zatekeen, eta horretarako kapazitatearik ez genuen. Autonomiak ematen zuen neurrian egindako lege batzen.

Garai hartan oso posizio ezberdinak zeuden politikan eta gizartean, eta ezin da esan helburu bakarraz zegoenik. Nire ustez, helburu ugari zeuden, eta horren arabera, egin zen legea batzuentzat ona izan zen eta beste batzuentzat ez.

Zentzu horretan, aurretik egindako eztabaidetan hainbat gauza adostu ziren: zer motatako eskola nahi genuen, autonomia, euskara maila... eta ondoren legeak ez zituen jaso. Nire ustez hori garrantzitsua da. Argi eta garbi ikusi zen legea egiterakoan akordio bat egin zegoela. Alde batetik eskola publikoa arautu nahi zutenak baina Euskal Herrian zer motatako eskola egin behar zen oso argi ez zeukatenak zeuden; eta beste aldetik Madrilen ondotik aldendu nahi ez zutenak.

J. Iñaki Etxezarreta.- Euskal Eskola Publikoaren Legea PSOEk, EEk eta EAJk egin zuten eskola itunerako akordio politikoaren barruan egin zen; akordio politiko haren puntuetako bat izan zen, ez bakarra, baina giltzarria geroa begira.

Eskola akordio hartan hiru saretatik bira pasatzea planteatzen zen, eta horrekin batera, sortu behar zen eskola edo sare antolaketak Europar normalizatuta zegoen eredu bat izan behar zuela. Beraz, administrazioarena zen eskola publiko bat eta eskola pribatu bat behar ziren, ez besterik. Horrekin batera, beste puntu bat agertu zen: bi sare horien ikasle kopuruak neurtuak izango zirela, hots, inor ez zela haziko eman zi-

tzaion pastel pusketa baino gehiago. Hori da akordioetan agertzen dena eta aurrera eramaten dena.

Orduan, testuinguru horretan ulertu behar da EEPL. Kontuan hartu behar da EAEn EEPL badagoela, baina Euskal Eskolaren legerik ez dagoela.

Marije Fullaondo.- Mahaikideek egindako gogoetarekin bat nator, beraz, ez du merezi errepikatzen ibiltzea. Gauza bakar bat aipatu nahiko nuke: noraino izan zitekeen berria legea EAEk praktikan dituen eskumenak ikusita? Konpetentzia osoaz hitz egiten da, baina legearen lehenengo atalean bertan, Zioen Adierazpenean hain zuzen, mugatzen dira eskumen horiek. Euskal Eskola Publikoaren Legea estatu espainiarreko lege organikoaren menpe dago, batetik. Han hartutako printzipioek eta arauak baldintzatzen dute EEPL. Bestetik, legearen onarpenaren ondoren berau "garatzeko" egin diren dekretu eta araudiek honen garapenerako baino inboluziorako balio izan dutela esango nuke.

Legea egin aurretik hezkuntza erakundeen eta eragileen artean adostasun bat lortu zen bost puntuen inguruan: euskalduna, titularitate publikoa, kudeaketa demokratikoa eta autonomia, finantziarioa eta lan marko berria. Legeak puntu horiek jasotzen ez zituen ez, ez zenuten onartu. Zer iritzi duzue horren inguruan urte hauek pasa ondoren?

Fullaondo.- Guk, Sortzen-Ikasbatuaz bezala, puntu horien inguruko proposamena egin dugu berriki. Izan ere, legean hitzak aipatzen dira, ikastetxeen autonomia aipatzen da, langileen aukeraketan eskolak parte hartzea aipatzen da, finantziaketa autonomia, euskalduntzea, sektore eta eragileen partaidetza... aipatzen dira, baina azken erabakia beti administrazioak duela esanez bukatzen du. Esanak esan, ikastetxearen eta eragileen parte-hartzea informazioa jasotzera eta, kasurik onenean, iritzia ematera mugatzen da. Dena den, hainbat gauza onerako aldatu dira, hori ezin ukatu; hala ere, legea



egin aurretik lortutako adostasun puntuetan ez da gehiegi aurreratu, ez behintzat, ahal eta behar beste.

Guk egiten dugun proposamenarekin titulartasun publikoaren edukia inguruko eztabaida bat sortu nahi dugu. Zer esan nahi du titulartasun publikoaren duen ikastetxea izateak, administrazioaren menpeko ikastetxea izatea ala bakoitzak bere erabakiak hartzeko eskumena izatea? Eskolak berak baino hobeto ezingo ditu hartu inork eskolari dagozkion erabakiak. Administrazioaren funtzioa erabaki horiek kontrolatzea litzateke bi arrazoigatik: diru publiko lagundutako ikastetxeak direlako eta gutxieneko baldintzak bete behar dituztelako hezkuntzaren printzipioak errespetatuak izan daitezken.

Eizagirre.- Nire ustez 10 urte hauetan gauzak asko aldatu dira. Zehatzago esanez, ez dira 10 urteotako aldaketak soilik, aurretik ere bazetozen. 80ko hamarkadan gauzak aldatzeko gogoia present zegoen arlo guztietan, sare guztietan, erakunde guztietan, sektore guztietan... eta gizarte eragileok saiatu ginen hori gauzatzen EEPLren aurreko eztabaidetan.

Puntu bateraino ideia haiek hitzetan jasota daudela esango nuke, papelean eta legean jarrita daudela. Edonola ere, azken hitza administrazioak duela errekonozitzen du eta horrek mugak jartzen ditu. Uste dut hori nabaritu dela 10 urteotan. Ezin da esan gauzak lehen bezala daudenik, gauzak aldatu egin dira, asko gainera, eta onerako. Edozein modutan, orain dela 10 urteko eztabaidetan ikusten ziren mugak nabariak dira.

Zein dira ikusten dituzuen muga horiek?

Eizagirre.- Gurasoen aldetik argi eta garbi ikusten dut euskalduntze prozesuari beldurra geniola; ez euskalduntzea zabalduko ez zelako, bagenekien hori hedatuko zela D eredu asko zabaltzen ari zelako eta murgiltze sistemak ezartzen ari zirelako. Baina, aldi berean, zenbait esparru euskaldundu gabe gelditzeko arriskua ikusten genuen eta gaur egun A eredu da horren adierazle garbiena. Eredu hori mantentzeko arrazoi bezala ikasle horien esku-bidea aipatzen da, baina populazioaren sektore batzuk sartzeko erabiltzen da gero.

Beste muga bat ikastetxea aukeratzeko eskubiderik eza da. Gurasooi ikastetxea aukeratzeko jartzen zaizkigun oztopoak gehiegizkoak dira.

Bestalde, gurasoen partaidetza legeetan onartua dago eta LOGSEn eta LOCEn baino handiagoa da EEPLan. Haatik, partaidetza informazioa ematera mugatzen da eta guk beste gauza bat eskatzen genuen.

Hori oso lotuta dago ikastetxeen autonomiarekin. Legearen zulorik handiena hori da, nire ustez: ikastetxeen autonomia. Hitza hamaika lekutan agertzen den arren, traba legalak jarri dira legearen ostean: araudiak, dekretuak... Horiek denek ez dute uzten ikastetxearen autonomia garatzen.

Badago beste muga bat ere: ikastetxearen eta irakasleen arteko erlazioa. Ikastetxeak irakasleak aukeratzeko duen ahalmena hutsaren hurrengoa da. Legeak dio gizarte eragileek esku hartzea edukiko dutela planifikazio

Mahai ingurua

EEPL

E

Nire ustez hamar urte hauetan gauzak aldatu egin dira, asko gainera, eta onerako. Edozein modutan, orain dela hamar urteko eztabaidetan ikusten ziren mugak agerian gelditu dira, azken erabakia beti administrazioaren esku gelditzen baita

Ana Eizagirre

orokorra eta konkretuak egiterakoan, eta hori ez da egia. Egia da memento puntual batzuetan parte hartu dugula, baina gaur egun administrazioari planifikazioari buruzko zerbaite esan eta "planifikazioa guri dagokigu" erantzuten du. Gurasook ezin badugu esan gela bat zabaldu behar dugula edota irakasle bat behar dugula, hots, ezin badugu egin ikastetxeko, zonaldeko eta herrialde planifikazioa, benetan, ez dakit non gelditzen diren ahalmenak.

Fullaondo.- Izan ere, nire ustez, eskola berriaren gakoa partaidetzan eta ikastetxearen autonomian dago. Partaidetzak ez du zentzurik informazio trukatzeko hutsa bada, azken erabakietan inziditzeko inolako gaitasunik gabe. Ikastetxearen autonomiaren inguruan, zera esan beharra dago: EEPLk dituen 68 ataletatik 40k hitz egiten dutela autonomiari buruz. Are gehiago, ataletako batean ikastetxeen autonomia gauzatzeko bide eman dezan lege esparrua sortu beharra dagoela esaten du. Non dago atal horren eta beste askoren garapena? Dagoeneko, Hezkuntza Sailaren mahai gainean jarri da autonomia garatuko luketen ikastetxe piloitoak martxan jartzeko proiektua, baina, mementoz, bere horretan dago.

Etxezarreta.- Nik uste dut sakon sakonean EEPL egin zenean saio garrantzitsu bat egin zela erredaktoreen

aldetik, batetik estatuan zegoen eredu berdina errepikatzeke, eta bestetik ikastolek errebindikatzeko zituzten elementu haiek guztiak (euskalduntzea, autonomia...), besterik ez bazen ere, literaturaz jasotzeko.

Haren analisisia egin genuenean eta hura egiteko inolako bermerik ez zegoela esan genuenean, nekez esplikatzeko jarraera hura, legean literatura hori bazegoelako; ez esaldi batean, ez parrafo batean, izugarriko garapenerkin baizik. Gaur egun, 10 urte pasa eta gero, literatura hutsa zela ikusten da. Gehiago esango nuke, ikastola guztiak publikatu izan bagina garai hartan, seguru gaur oraindik garapen txikiagoa izango zukeela. Alegia, baldin eta beste era bateko eskola eredu batzuen bitartez eskola autonomia, benetako autonomia, eskolaren autogestiorako gaitasuna, posible dela ikusten baldin bada, orduan garatu ahal izango da. Horregatik, nik izugarriko garrantzia ematen diot eskola publikoaren sarearen barruan ere, modu esperimentalean bada ere, horrelako programak garatzeari. Zeren, legegilea kontserbadorea baita, administrazioan kudeatzen ari dena ere bai, eta ez dute aldaketarik egin nahi izaten. Zergatik? Sistema kontrolatuta daukatelako eta ez dutelako arazorik nahi. Aldaketak beti arazoak dira, eta hori oso sustraituta dago hemen.

1993ko maiatzaren 25a izan zen



ikastolek publikatu edo ez erabakitzeko azkeneguna. 10 urte beranduago nola baloratzen duzu erabaki hura?

Etxezarreta.- Lehendabizi, Ikastolen Federazioak eta Konfederazioa EEPL haren guztiz kontra egon zirela esan behar da, eta gero ikastola bakoitzak bere erabakia hartu zuela; batzuek baiezkoa eta besteek ezezkoa. Eskola publikoek ez zuten erabaki behar izan eskola publikoaren aplikazioa egingo zitzaien edo ez, ikastolek baizik.

Gure analisia zen garai hartan alderdi sozialistak, alderdi jeltzaleak eta Euskadiko Ezkerrak planteatzen zuten eskola motak ez zuela inolako posibilitaterik ematen guk planteatzen genuen benetako aldaketa egiteko. 10 urteko historian halaxe frogatu da. Aldaketa ez da posible izan akordio politiko hartan nabarmendu zelako eredu "normal" bat behar zela, eta "normal" hori Europan nagusi zen ereduaren zena, hura nahi zen.

Aldiz, badaude EEPLren bidez garatu diren hainbat elementu. Esate baterako, euskalduntze prozesua, legitimazio instituzionalaren bitartez, herri guztietara hedatu da. Alde horretatik, EEPLak 80ko hamarkadako euskalduntze prozesua finkatu duela esango nuke. Baina eskola berri, moderno eta autonomo bat egitearen prozesuari ez dio inongo ekarpenik egin. Galdutako aukera bat dela esango nuke.

Ikastolen ikuspegitik, orduan hartu genuen erabakia berretsi egiten dugu, hau da, ikastolen mugimenduak irauzahal izateko eta eskola egiteko beste modu bat planteatzeko aukera bakarra EEPL ez onartzea zela. Euskal eskolaren proiektu bat egin nahi bada eta egoera juridikoa, politikoa eta alderdi politikoen klabe kulturalak aldatzen ez diren bitartean, ezinbestekoa da erreferentzia eskolar bat edukitzea eskola beste era batera egin litekeela frogatzeko, eta hori da ikastolen mugimendua. Beraz, badago zilegitasun osoa duen eskola erlijioso bat, badago zilegitasun osoa bereganatua duen eskola publiko bat, baina aldi berean, badago zilegita-



sun osoa duen beste eskola mota bat, ikastolen mugimendua.

Nola ikusten dituzue gauzak etorkizunera begira?

Etxezarreta.- Prozesu honetan hiru eragile nagusi egon dira eta horiei begiratu behar zaie etorkizuna aurreikusi ahal izateko.

Lehenengo eragilea gizartean egon litezkeen egoerak dira: jaiotze tasa, go-goak, interesak... Memento honetan horien nondik nora joko duten esatea oso zaila da.

Bigarren eragilea eskolen taldeak dira. Horiek egingo dutena aurreikus-tea errazago da, gauzak egiteko moduan inertzia batzuk bai baitituzte.

Eta hirugarren eragilea politika da.

Egoera politikoan zer aurreikuspen egiten duzu?

Etxezarreta.- Bistan da, aurreko 20-30 urtetan guztiz eragingarria izan dela ikastolen fenomeno sortzeko, euskal irakaskuntza sustatzeko, instituzionalizazio prozesua emateko, horren arabera erantzun batzuk emateko... Bistan da politikak izugarri eragiten duela eta eragingo duela hurrengo urteetan ere.

Zein eszenatokirekin topa gaitzke?

Etxezarreta.- Alderdi konstituzionalistak deitzen direnak, hots, alderdi espainolistak, gailentzen badira, euskal irakaskuntzan agian aldaketa nabarmenegiak ez dira egongo. Gaur

Merkatua
eta hezkuntza
lotu egiten dira,
merkatua
ikastetxera ekarri
da. Baina ez da
ahaztu behar
hezkuntzak
badituela bere
balio propioak,
giza baldintzari
erantzuten
diotenak

J. I. aki Etxezarreta

Mahai ingurua

EEPL



Euskal

>Hezkuntza Sistema
hitz multzo potoloa
edukiz bete behar
dugu eta honek,
hasteko, hausnarketa
eskatzen du.
Hausnarketa
beharrezko baldintza
da, baina ez nahikoa.
Elkarlana ere
ezinbestekoa dugu

Marije Fullaondo

egun A, B eta D eredu bitartez lortu den eskolatzeko euskaldun horretan ez da aldaketa handirik egongo. Memento honetan euskarazko irakaskuntzaren aurka egon litezkeenek ere ez dute diskurtso sozial hori egiten. Dena dela, euskalduntze prozesua epeldu egin dezakete eta larre gaiztoa sartu tartean, baina badakite oso epe luzerako estrategia izan beharko duela. Nafarroan saiatu diren bezala egin dezakete, baina oso zaila dute, Nafarroako eta EAEko hizkuntz egoera ez baitira berdinak.

Arazorik handienak euskaldun senarekin zerikusia duten curriculum aspektuetan egongo lirarteke. Konstituzio espainolaren izenean eta ustez han agertzen diren askatasun demokratiko eta kolektiboen izenean, memento batean planteatu dezakete “euskaldun irakaskuntza bai, baina euskaldun heziketa ez”, alegia, guk euskaldun heziketa ulertzeko daukagun moduari ez. Horrek kokapen berri bat ekarriko luke.

Ibarretxeren eszenatokiaren aurrean, euskal irakaskuntzaren erabateko kompetentziak eskatuko direla planteatzen da. Beraz, proposamen horretan aitortzen da pasiboz gaur egun ez daukela kompetentzia guztiak. Ildo horretan, agian euskal hezkuntza sistema propio baten formula juridikoa aurrera eramanez ahal izango litzateke, baina EAEri legokiokeena, ez besterik.

Euskal irakaskuntzaren eta euskal curriculumaren aldetik garapen handia izan lezakeela iruditzen zait, baina ez dut ikusten eskola publiko berri bat egiteko proposamenik alderdi abertzaleen aldetik (ez EA, ez EAJ, ez EB eta ez ezker abertzalea). Aldaketak egon litezke elementu ideologiko-kulturaltan, baina ez eskola eta eskolak jokatzen duen gizarte funtzioari begira.

Ezker abertzaleak klandestinitate egoeran jarraitzen baldin badu, sekularismo tentsioa sorraraziko du eta ezegonkortasun egoeran sartuko gara. Horrek seguraski alderdi konstituzionalisten irabazpideekin eta abar lotura izango luke, bistan baita operazioa horretarako diseinatua dela.

Aldiz, nik uste dut ezker abertzale-

ak gogoeta sakon bat egingo duela eta horren bitartez bide berri bat irekiko duela. Bide horren bitartez, ezker abertzaleak eta abertzaletasun instituzionalak, nolabait esateagatik, jorratu beharko duten bideek ezinbestez bateratu egin beharko dute. Ez dakit horrek zer itun ekarriko duen, baina ezinbestez bateratu beharko dute eta horrek eskolan izugarritzko eragina izango du.

Nola kokatzen dira ikastolak hor?

Etkezarraketa.- Aurreko 30-40 urteetan bezala, ikastolen xede nagusia euskal eskola nazionala ahalbidetzea da eta horretarako, hiru bide ikusten ditugu.

Lehen a euskal curriculum garaitea. Oso bistakoa da elementu estrategikoa dela. Beraz, nahiz kointurua espainolista batean nahiz kointura berri batean, gure papera ezin da gelditu alde horretatik. Ezinbestekoa dugu horretan aurrera egitea eta bide berri bat egiten saiatzea.

Bigarrenik, ezinbestekoa dugu eskola talde moduan tinkotuta egotea.

Eta hirugarrenik, nahitaezkoa dugu kointura honetan eskatzen zaigun alternatiba izatea. Alegia, hirugarren bide bat izatea. Garrantzitsua da eskola pribatuaz eta publikoaz aparte beste erreferentzia eskolar bat egotea bai pedagogian eta bai eskola antolatzeko moduan. Zeren erreferente horiek daukela bitartean, historikoki egiaztatu den bezala, gutxienez gogoeta egiten da, nahiz eta gero alderdi politikoek beste erabaki batzuk hartu. EEPLAN autonomiari buruz hainbeste idatzi baldin bazen, ikastolen existentziagatik izan zen.

Sare publikoaren papera nola aurreratu dugu Sortzen-Ikasbatuetatik?

Fullaondo.- Memento honetan eskola publikoaren barruan hausnarketa prozesu bat aurrera eramaten ari gara. Sare publikoaren barruan gauden artean zer nolako eskola publikoa nahi dugun definitu nahi dugu gutxieneko batzuetara iritsi ahal izateko, baina eskolatik abiatuta.

Boterearen aldetik ez da horrelako

mugimendurik egingo, gauzak ez dira gehiegi aldatuko atzetik eskaera indartsu bat ez baldin badago.

Irñakik zioen bezala, irakaskuntzan ikastolak erreferente izango badira, eskola erlijiosoak erreferente izango bada, eskola publikoak ere ezinbesteko erreferente indartsua izan behar du. Eta horretarako adostasun batzuetara iritsi behar dugu eskola publikoan: nolakoak izatea nahi dugun, zein den euskal eskola publikoaren proiektua.

Memento honetan irakaskuntza publikoaren barruan proiektu bateraturik gabe gaude. Bakoitzak bere hezkuntza proiektua du, bakoitzak ahal duena egiten du... baina ez dago batasunik. Eta hori falta da. Zer eskola mota nahi dugu? Zein dira gure helburuak? Nola metatuko ditugu indarrak xede horiek lortzeko? Hori da memento honetan esku artean daukagun proposamena.

Euskal hezkuntza sistema baten eraketa posible ikusten al duzue?

Eizagirre.- Nahiz eta memento zaila izan eta oztopo pila bat ikusi, bidea hezkuntza sistema propioa egitea da. Ez dakit oso ondo nola egin beharko dugun, memento honetan daukagun baliabideekin, esperientziarekin eta etorkizun itzaropentsua ikusiz. Edonola ere argi dago egin behar dugula, gizarte osoarekin eta gizarte osoarentzat. Modu horretan gizartea gai izango da administrazioari planto egiteko eta benetan zer eskola mota nahi duen esateko.

Uste dut hemengo administrazioari hemendik aurrera zer egingo duen galdetzeko garaia dela. Gizarte eragileok nahiko argi esan dugu gauzak aldatu nahi ditugula eta badago elkarrekin gauzak egiteko nahia. Administrazioak, ordea, ez du gehiegi laguntzen horretan. Orain arte daukagun esperientzia ikusita, legean bezala, administrazioan ere hitzak oso politikak dira, baina gero ez dira praktikara eramaten. Madriletik "al orden" esaten dutenean, ez garela "al orden" jarriko erantzuten du hemengo administrazioak, baina gero azpikoaren bidez arauak ikastetxeetara

iristen dira.

10 urte dira legea martxan jarri zela eta berrikusi egin behar da. Hezkuntza sistema propioa lortu nahi badugu, legearekin zer egin behar den begiratu behar da. Ez dugu konformatu behar besteak hobeto daudela esanez. Besteak nola dauden jakitea ongi dago, baina guk nora heldu nahi dugun jakin behar dugu eta hori lortu arte lanean jarraitu. Zer hezkuntza sistema nahi dugun eta Euskal Herrian zer egin nahi dugun izan behar du gure xedeak, eta ez besteak nola dauden.

Etxezarreta.- Kalitate Legea irakurtzen baldin badugu, Lisboan europar batzordeak onartutako norabideekin bat datorrela konturatuko gara, alegia, PP saiatu da lege horretan Europar hezkuntza sistemei egokitzen zaien papera sartzan. Eta hor merkataritzako planteamendua egiten da. Merkaturia eta hezkuntza lotu egiten dira, merkaturia ikastetxeetara ekarri da. Baina ez da ahaztu behar hezkuntzak badituela bere balio propioak, giza baldintzari erantzuten diotenak. Beraz, horren inguruan gogoeta egin behar da. Indar instituzionalek oso nekez egingo dute gogoeta hori, eta egiten badute beti merkatuaren balioen arabera egingo dute, bai eskuinekoek eta bai ezkerrekoek. Hezkuntzan gabilitzanok egin behar dugu gogoeta hori eta alternatiba bihurtu. Nik uste dut alderdi hori falta dela. EEPLak memento batean helburu batzuk baldin bazituen, bete edo ez, orain hezkuntza arautze propio bat nahi baldin badugu, ez dira soilik kompetentzia politikoak eduki behar, baita hezkuntza gogoeta propio bat ere. Gogoeta hori ez da alderdi politikoen programetan soilik egin behar, baizik eta eskolek garatzen duten esperientziaren gainean. Eta hori da, nire ustez, sare publikoaren barruan falta dena. Alegia, esperientzia alternatibo horiek mamitzea, diskurtso bat gorpuztea, diskurtso horiek praktikan jartzea eta zeregin politiko-instituzionalek jartzea.

Agian, lehen aipatu ditugun eszenatoki politiko horiek argituta eta Europan dagoen testuinguru globalizatzaile



lea aintzat hartuta, iritsi da garaia gutxienez Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan euskal irakaskuntza beste era batera modelatzeko. Batetik, azken urteotan egin dena biltzeko, eta hori lege batek egiten du normalean. Eta bestetik, hemen aipatu ditugun zenbait alderdi ahalbidetzeko: sare erlijiosoak eduki dezakeen hezkuntza eta antolaketa esperientzia bideratzeko, sare publikoak ustez garatu dituen eskola eta hezkuntza esperientziak aurrera eramateko eta ikastolek eureana. Agian euskal irakaskuntza beste era bateko formula juridiko batzuetan antolatuko eta ordenatuko duten arauak, legeak edo dena delakoak jartzeko aukera ireki liteke. Hori ezin dugu bistatik kendu, baina eszenatoki politikoaren baitan dago.

Fullaondo.- Askotan aipatzen dugu Euskal Hezkuntza Sistema beharrezkoa dugula, horrek emango baitigu eskola guk geuk, geure beharretatik abiatuz, geure neurrira egindako eskola eraikitzen hasteko bidea. Zalantzarik gabe, hori da guk egiten dugun aukera. Baina "Euskal Hezkuntza Sistema" hitz multzo potoloa edukiz bete behar dugu eta honek, hasteko, hausnarketa eskatzen du. Gizartearen hausnarketa eta eskolatik abiatu beharreko gogoeta sakona. Baina hori baino gehiago ere beharko dugu. Hausnarketa beharrezko baldintza da, baina ez nahikoa. Elkarlana ere ezinbestekoa dugu. Bidea hori dela sinisten dugun guztion adostasuna lortzera bideratutako elkarlana, eta balizko adostasunak aurrera eramateko indarra.



Zer dira janari transgenikoak? Ikaztegietako herri eskolako ikasleek azalduko digute

Ikaztegietako herri eskolan janari transgenikoen inguruan egin den lan esanguratsu baten berri ematen dugu idazki honetan. 4., 5. eta 6. mailako gelan eraman da aurrera egitasmoa eta denera 15 ikasle aritu dira lanean eta eztabaidan gaurkotasunez beteriko gai honen inguruan. Hori bai, adinaren arabera gaia modu batera edo bestera landu dute, maila ezberdinak errespetatuz eta ekarpenen izaera ezberdinari eutsiz. Helduenek gazteenei ere beraien ikasiak erakutsi eta trukatzekeo parada izan dute.

Ima Delgado irakasleak aipatu digunez, haurren aurretiko jakintzatik abiatzeari eta beraien inizatibaz gaien aurrera jarraitzeari garrantzia emanaz emaitza oso baikorrak jaso dituzte. Hasiera batean irakasleak harriturik geratu ziren haurrek gelan plazaratutako iritzi eta terminoekin, ez baitzuten espero genetika gaiaren inguruan horrenbeste jakingo zutenik. 2002ko maiatzean egin zuten jadanik aurkezpen txiki bat gaiaren inguruan eta hurrengo ikasturteko urrian hasita aurtengo martxo arte aritu dira lanean.

Hasiera hartan, Ameriketako aurkikuntzaren inguruko ikasgaiarekin ari ziren eta gaiaren barruan irtenaldi bat antolatuz zuten Tolosako Zuloaga Txiki Ingurumen elkartera, non Ameriketa-

tik ekarritako gozoak ikusi eta aipatu ziren: azukrea eta kakaoa, besteak beste. Orduan, ikasleek beren kabuz beste janari batzuk gogorarazi zituzten: txokolatea, artoa, babarrunak... Ondoren, gaur egungo janariei buruzko elkarrizketa bultzatu zuen irakasleak eta zehazki janari transgenikoen berririk ba al zuten galdetu zien.


Hortik abiatuta, hasieran binaka eta gero talde handian (15 ikasleak) gaia lantzen hasi ziren. *“Azpimarratzekoa da talde txikitik egon ziren bitartean, oso baxu hitz egiten zutela eta ez zegoela batere builarik”* dio Ima Delgado irakasleak.

Builarik gabe eta interes handiz murgildu zirela aipatzen du. *“Ikasle hauek taldean lan egiten eta hiztegia erabiltzen ohituak daude eta horrek eragin du beraien inizatibaz gaiari interesez heltzea ere, erabat motibatuak agertu baitziren memento oro. Testu liburuak kontsulta liburu bezala eta kutsu entziklopedikoan erabili zi-*

tuzten eta edukian zentratu ziren. Horrela, lan giro oso dinamikoa sortu zen”. Erromaren barruan Internetetik jaitziko testu “zail” bat ere erabili zuten, gaiaren berri ematen zuena. *“Helburua ez da dena jakitea, janariaren aukeraketaren garrantziaz konturatzea, zaintzea eta kokatzea baizik. Arreta pixka bat jar dezatela etiketetan jakiak erosterako garaian. Garrantzitsuena gaurkotasunez beteriko gai honen inguruan interesa piztea da”* aipatu digu Ima irakasleak.

Informazio iturri anitzten artean ibiltzen ikasi dute

Erabilitako metodologiaren barruan, Interneten erabilgarritasuna, informazioaren bilaketa, hiztegien erabilera, etxean galdetzea eta talde lanean aritzea izan dira lanaren funtsetako bat. Bestalde, Interneteko testu gehienak gaztelaniaz daude eta itzulpenak zailtasunen bat suposatzen badu ere, ariketa interesgarriak sortu omen zaizkie eta tes-



tuzailei izaten dieten muga hori hausteko ere balio izan omen du. Garbi gertzen da, beraz, gaia lantzeaz gain lan metodo eta bestelako arloak ere landu dituztela eta etekin handia atera diotela janari transgenikoen inguruko ekintza honi, hainbat zehar-lerro landuz.

Iniziatibaren barruan, transgeniko-ei buruzko informazioa modu garbian agertzen duen liburu bat ere erabili zuen iraksleak, erabat gomendagarri bezala kontsideratzen duena: Jorge Riechmannen *Qué son los alimentos transgénicos*, hain zuzen ere. Hasieran pisutsua badirudi ere, ikasleek gustura irakurri omen zuten.

Interesgarria da aipatzea eztabaida eta irakasgaia ez direla ikasgelara soilik mugatu. Ingurumenarekiko irakasbi-deez arduratzen den CEIDA elkartearen eta zenbait pertsonen parte-hartzea ezinbestekoak izan dira. Gurasoen artean badaude biologo bi eta argibide bat baino gehiago jaso dituzte etxetik eta komunikabideetatik ere.

“Askosakondugabe, gauzak ateratzen doaz elkarriketatik eta saioetan. Produktu naturalen alde agertzen dira, produktu kimikoen berri izan dute, eta klon, gena, ADN, moldaketak eta horrelako hitzekin ohitzen joan dira”.

Gehienbat jolas izaeran eta hurrei beren kasara pentsaraziz, betiere irakaslearen gidaritzan eta laguntzarekin, hurrengo irakasgaiarekin lotura egiteko modua ere izan dute. *Gen* hitzaren inguruan hasi eta gorputzeko atalen lanketari ekin diote hurrena, gorputzaren eta landareen zelulak aztertzeari ekinez.

Gisa honetako saioek denbora asko kentzen dutela baieztatu digu Imak, baina landu dituzten atal guztiak ikusita benetan merezi duela ziurtatu digu. *“Hanka sartuz, hitz eginez, edukiari baino prozedurari garrantzi gehiago eman diogu, eta ikasleak memento oro motibatuak izaten saiatu gara. Egokia iruditu zait ikasleei erantzuteko aukera ematea, berdin dio erantzun zuzena izan edo ez. Senti dezatela konfiantza esan nahi dutenarekin eta ez dezatela partekatze beldurrik izan”.* •



Oso interesgarria da haurrek gai bat lantzen hasi aurretik zer dakiten jakitea eta beraiei uztea bidea egiten. Hori egin zuen Inma Delgado irakasleak eta honako hausnarketak eta hipotesiak aireratu zituzten ikasleek besteak beste:

* Egon naizen lau taldetatik batean soilik aipatu ditu landareen arteko eraldaketak ikasle batek (Miren), *“horrela landare bat fuertea da eta horri hazi bat kentzen zaio eta beste bati ematen zaio, fruitu asko ematen duenari. Laborategian egiten dute, pintza batekin”.* Gainera esan du, *“etxean lehenago zereal batzuk jaten genituen, baina orain beste batzuk, aitak entzun duelako transgenikoak direla eta behar bada gaixotasunak sor ditzaketela”.*

* TRANS/GENIKOA hitzaren inguruan esandakoak:

Trans: *leku batetik bestera garrantiatzen dena.*

Genikoa: *ez dakigu zer den*

Beste talde batean (Beñat D. eta Uxue) lau hipotesi azaldu dituzte:

- *Herialde batetik bestera zabalduakoa.*

- *Egunero egunero janda ez zarelako gaixotzen.*

- *Munduan asko dagoen janaria.*

- *Denetik duen janaria: bitamina asko (irakasleak erantsi du: proteina asko).*

Irakasleak gogoratu du, talde horretan tenperaturari buruz aritu direla hizketan eta talde handiari hipotesi hori azaltzeko eskatu dio:

* *“Tenperatura ezberdinetan landatu daitekeena, Errusian ezin bada landatu eramaten da beste leku batetik”.*

* Irakasleak Albak azaldu hitzaren zatiketa gogora ekarri du berriro eta hurrei planteatu die ia badakiten zer den GENIKOA. Erantzunak:

- *Baratzatik ateratakoa.*

- *Higienikoa.*

- *Zientifikoek erabiltzen duten zerbait. Zientifikoek tomateari botatzen diote zerbait..., berriz gazta biologikoari ez diote ezer botatzen, ez koloranterik, ez ezer.*

- *Denetik edukitzea.*

* Irakasleak hitzaren beste zatiketa bat planteatzen du:

TRANS/GEN/IKOA

* Beste haur batek beste zatiketa planteatzen du:

TRANSGEN/NIKOAK

Adur: *Biologikoaren kontrakoa da.*

Maialen: *Artifiziala da, berez ez da horrelakoa, berez ez da hazi horri pasatzen.*

Lander: *Gauza bat bestearekin nahastea da, bi gauza dauzkena*

Alba: *Gen higienetik dator. Amerikatik ekarritakoa biologiko bezala da.*

Miren: (transgenikoa) *ez dela artifiziala esan duzu, Alba, nik usate dut artifiziala dela, bestela biologikoa jartzea zuen. Biologikoa transgenikoaren kontrakoa da.*

Maialen: *Hitz hori ingelesetik etorriko da.*



Goazen sexologia aztertzer eta bizitzer

UEUko Sexologia Sailak *Sexuen hezkuntzaren garapena euskal eskolan* izeneko gradu-ondokoa estreinatu du ikasturte honetan, eta aurrerantzean ere eskaintzan jarraituko du. Ikastaroaren asmoa jendakiaren sexualitatea hobeto ezagutzen hastea da, eta era berean, gaur egungo sexologiaren ekarpenak hezkuntza arloan euskaraz osatzea, sistematizatzea eta plazaratzea.

Badirudi azken urteotan sexu hezkuntzaz eta sexualitateaz gero eta gehiago hitz egiten dela. Ikastaro, prestakuntza eta mintegi ugari antolatzen dira bai ikasleentzat, bai irakasleentzat, zein gurasoentzat. Baina, hala ere, UEUko Sexologia Saileko 25 lagunek beste zerbait gehiago eskaini behar zela pentsatzen zuten; zerbait osatuagoa eta trinkoagoa eskaini nahi zuten, eta horren haritik prestatu dute *“Sexuen hezkuntzaren garapena euskal eskolan”* gradu-ondokoa. Hala kontatzen digute Iñaki Karrera eta Amaia Vazquez ikastaroaren bultzatzaileetako bi lagunek: *“Talde asko eta hamaika eskola ari gara gai hau lantzen, eskaera handia da, baina hala ere irakasleek ez dute jorratzen eta material kurrikular oso gutxi dago. Beraz, eskaera badago, baina eredu bat falta da, hots, gauzak argitzeko, horien inguruan hausnartzeko eta lanari ekiteko marko bat. Hori ikusirik prestatu dugu formatu luze-*

ko, 170 orduko, gradu-ondoko hau”.

Hutsune hori betetzearekin batera, beste bati ere erantzuten dio, orain arte ez baitzegoen mota horretako euskarazko gradu-ondokorik. *“Gu geroi ere Euskal Herritik at prestatu gara eta aukera hori hemen eskaintzeko unea iritsi da”* diote UEUko Sexologiako bi ordezkariak.

Hartzailea jendakiaren sexualitatea eta, bereziki, sexuen hezkuntzaren inguruan sakontzeko interesa duten profesional eta ikasle oro izan daiteke.

Ikastaroaren berezitasunak

Ikastaro honen berezitasunik aipagarrienak hiru dira. Lehendabizikoa, gradu-ondoko profesionalen jatorria da. Hainbat ezagutzatetik etorritako profesionalak dira, esan nahi baita, sexologian prestatuak izateaz gain, pedagogian, psikologian, filosofian, soziologian... jarduten dutenak direla, eta horrek osotasuna ematen dio ikastarolari. Izan ere, sexologia aztertzeaz gain, horrek beste ezagutza horietan zer eskain dezakeen ikusteko aukera ematen baitu.

Bigarren berezitasuna aberastasun pertsonalaren tailerra dugu. 32 ordutan norberari bere burua garatzeko aukera ematen dio tailerrak, eta horrek, noski, izugarriko garrantzia du gero transmisio lanak egiteko.

Eta hirugarren berezitasuna practicum da, hots, gradu-ondokoaren azken 40 ordutan programazio bat egiten da. Ikasitako guztia programazio batean txertatzen da, ondoren praktikara

eraman ahal izateko eta ondorioak aztertzeko. Beste modu batera esanda, sexu hezkuntzaren errealitatera hurbiltzeko saiakera egiten da.

Aipagarria da, era berean, terminologiaren inguruan egiten ari diren ekarpena. Izan ere, bi partaide hauek dioten bezala, *“gaztelaniak eta frantsesak beren diskurtsoak eta izen zientifikoak eta espezifikoak garatuak dituzte, baina euskarak ez. Orain arte bakoitza bere irizpideen arabera jardun gara, eta gu irizpide horiek bateratzen ari gara. Adostasun batera iristen ari gara eta hori oso garrantzitsua da”.*

Prestakuntza honekin lotu nahi den helburuetako bat ezagutza sexologikoa lantzea da. Horretarako, behar diren baliabideak eskainiko eta garatuko dituzte, ikastaroan parte hartzen dutenen eginkizun profesionalean lagungarriak izango direnak, hain zuzen ere. Modu berean, giza izate sexualaren aurrean sortzen diren jarreraren inguruan hausnarketa sakona egin nahi da, eta sexualitatearen inguruan irauten duten tabuak eta beldurrak gainditu ere bai. Mendebaldeko egungo kulturak ezartzen dituen balio sexualak ere aztertzen dira, horien ondorioen inguruan hausnarketa eginez. Sexualitatearen funtzioen eta horien garapenen berri ere ematen da.

Sexuen hezkuntza irakaskuntzan

UEUko Sexologia Sailean lanean ari diren profesionalak, beste askok bezala, urte dexente daramatza ikastetxee-

tan sexualitatearen gaia lantzen, eta al-daketarik sumatu ote duen galdetuta zera erantzun du: *“Balioak eraldatu dira: guraso asko banatu egiten dira, homosexualitatea ezberdin ikusten da... baina oso harrigarria egin zait gela batera joan eta garai bateko rolak mantentzen direla ikusteak”*.

Sexuen hezkuntza ikastetxeetan txertatuz doan arren, aldaketak nekez etortzen dira. Edonola ere, besteak beste, inguruneak eta gurasoen maila ekonomikoak eta kulturalak eragin handia dutela nabarmentzen du. *“Irakasle asko prestatu ditugu urte hauetan, baina*

gero ez dute praktikan jartzen ikasitakoa. Dena dela, esperientzia txikiak eta positiboak badaude, eta hori da bidea”.

Sexu hezkuntzan aritzen diren gehienek ustez, Haur eta Lehen Hezkuntzan irakasleek beraiek arduratu beharko lukete sexu hezkuntzaz. DBHn eta Batxilergoan, aldiz, gazte- txoek bizipen gehiago dituztenez, irakaslearen eta kanpoko profesionalaren lana osagarriak izan litezke.

Mementoz ez da derrigorrezko ikasgai bezala planteatzea, eta hala izan gabe, beste planteamendu bat egiten

du Karrerak. *“Ikasgai bezala ezartzea baino egokiagoa iruditzen zait hainbat ezagutzatan eta arlotan lantzea sexu hezkuntza. Aukerarik egongo baltz, nik gainerako ekarpen guztiak ko-ordinatzeko eta biribiltzeko balioko lu-keen leku bat emango nioke sexu hez- kuntzari”*. •

Informazio gehiagorako:

Irati Iciar

Tel.: 943 82 14 26

Faxa: 943 82 06 16

E-posta: ikastaroak@ueu.org

www.ueu.org

Kontzeptuak argituz

Izaki sexuak

Izaki guztiok sexuatuak gara eta sexuen hezkuntzaren zeregina honako hau da: izaki guztiok dugun dimentsio hau ezagutzen, ikertzen eta lantzen saiatzen da; beraz, izaki sexuakua identifikatzeaz arduratzen da. Izaki sexuakua norbera da, autoktonoa, originala, ez da egitura biologikoetatik soilik sortzen, bizipenek eta esperientziek eraikuntza honetan eragin handia dute.

Efigenio Amezua sexologo ospetsuak eredu bat proposatzen du giza izate sexuala ulertu eta deskribatzeko, eta lau elementu bereizten ditu:

1- **Sexua edo sexuaketa prozesua:** sexuaketa prozesuan parte hartuko duen elementu hauen artean bi multzo nagusi bereiz ditzakegu. Batetik, biologiarekin zerkusi handiagoa duten elementuena: kromosomak, genitalak, hormonak... Eta bestetik, giza elementuak: familia, hizkuntza, ohiturak, erlijioa... Giza eta biologia elementu horiek korapilatzen hasten direnean **giza izate sexualaren** sustrai eta enborra eraikitzen dira, eta bi modu soilik hartzen ditu: emakumezkoarena eta gizonezkoarena, neskarena eta mutilarena. Munduko giza talde guztietan ematen da prozesu berbera, hainbat sexuaketa elementu sozial eta biologikoen nahasketa korapilotsuaren ondorioz, emakumezko edo gizonezko eraikitzen gara.

2- **Sexualitatea:** gizakion dimentsio subjektiboa da, pertsona bakoitzak bere sexua bizitzeko manera eta kalitatea eduki ditzake. Hau da, gizaki bakoitzak, sexuaketa

prozesua medio, bere maskulinitatea edota feminitatea bizitzeko duen era da. Are gehiago, pertsona bakoitzak gizonezko edota emakumezko egiteko, sentitzeko eta bizitzeko duen modu pertsonala, berarena. Eta bizi izateko, sentitzeko eta existitzeko modu honek, nolabait, gure identitatea moldatzen du, esan dugunagatik eta hala-beharrez identitate hau sexuaketa gertatzen delarik.

Honekin batera, ezin dugu ahaztu pertsonok gizarte konkretu bateko partaide garela, eta horrexegatik, “sexu rol” batzuk jorratuta eta ezarrita dauzkagula.

3- **Erotika edo desioa:** pertsonen arteko erakarpenarekin eta sedukzioarekin zerkusia duen hirugarren esparrua da. Desioa pertsonen arteko harremanak ahalbidetzen duen oinarritzko materia da. Desioaren ezaugarri nagusia bestearen bilaketa bultzatzea da.

Desio edo erotika honen konposaketan hainbat osagaiaren parte-hartzea bereiz dezakegu, hala nola, sentimenduak, sentsazioak, fantasiak, irudimena eta abar. Horiek guztiak, sexuarekin eta sexualitatearekin batera, pertsona bakoitzaren ezaugarriak eta ñabardurak osatzen dituzte.

4- **Amatoria:** aipatu ditugun hiru esparruen (sexuaketa, sexualitatea eta erotika) ondorioa da. Erotikaren edo desioaren manifestazio, dimentsio, praxis edota adierazpen praktikoa bezala ulertzen da. Kontzeptu honek pertsonen artean ematen diren erritual, ohitura, usadio eta elkartopaketaren berri eman nahi du. Kontuan izanik, beti ere, topo egite hauek gizakumeok sexuaketa garelako sortzen direla.

Beste sexologo batzuek honako laburpena egiten dute honen guztiaren inguruan:

1- **Sexua:** determinazio biologikoa da, organo genitalak dira.

2- **Sexualitatea:** gizakiok jaiotzez hiru gaitasun ditugu eta, kulturaren sartzen garenean, gaitasun horiek egitura batean bilakatzen dira.

3- **Gozamena:** komunikazioan hasten garenean sortzen da. Adibidez, haur txikiak energia sexuala organo erogenoetan bizitzen dute eta gozatu egiten dute.

4- **Maitemintzea:** sozializatzen hasten garenean norberaren sexualitate gaitasuna ere sozializazio horretan sartzen da eta hor sortzen da maitemintzea edo sentimenduak.

5- **Ugalketa:** gaitasun biologikoa da, baina kulturak asko baldintzatzen duena.

Hori guztia gizaki bakoitzak bere era propioan bizitzen du. Horregatik diogu pertsona adina sexualitate dagoela.

Edertasun estetikoak eta edertasun funtzionalak

Edertasun estetikoak inposatzen edo saltzen zaigun edertasun ereduak lotzen da.

Edertasun funtzionalak, aldiz, subjektuaren eraikuntzarako baliagarriak diren ezaugarriak ematen die garrantzia. Hau da, pertsona batek begi politak dituela pentsa dezake koloreagatik edo formagatik, eta ez ikusteko balio diotelako. Azken horretaz jabetzea eta horri garrantzia ematea da edertasun funtzionala. Horrela, bakoitzak bere barruko edertasuna ikusten du eta askoz gehiago baloratzen du bere gorputza. Autoestimarekin lotura zuzena du.

Gure lagunarteko hizkera euskara da, eta zuena?

Lagunarteko Hizkerarekin jolasean Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkartek eta Urtxintxa Astialdiko Hezitzaileen Eskolak elkarlanean garatutako egitasmo bat da, DEHko ikasleei zuzendurikoa.

Urtxintxa eskola Euskal Herriko hiriburuetan aisialdirako formazio intebentzioetan eta egitasmoetan lanean aritu da 16 urtez eta Ttakun Kultur Elkartea, beriz, Lasarte-Orian euskaren erabilera bultzatzeko asmoz sorturiko elkarte da. Talde honetan ere aisialdirako ekitaldi ugari prestatu eta garatu izan dituzte.

Lagunarteko hizketan, erregistro ez formalean, gaztelaniaren erabilera ugaria dela eta euskaraz egokiak ez diren egiturak ere maiz entzuten direla errealitate bat da. Gazteak horretaz kontura daitezten eta pixkanaka ohitura eta errekurso berriak erakusteko asmoarekin ateratu dute *Lagunarteko Hizkerarekin jolasean* proiektua aurrera, ludi-kotasun kutsu handia duelarik.

Guztia Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuak arazo horri aurre egiteko proiektu eskaera egin zuenean hasi zen. Urtxintxa eta Ttakun elkarteek, lehenagotik ere elkarlanean arituak zirenez eta helburu bateratuak zituzteenez, proiektua elkarrekin aurkeztea erabaki zuten, Urtxintxako Jaime Altunak eta Ttakuneko Iñaki Eizmendik adierazi digutenez. Konturatzera-

lanean ziharduten lagunarteko euskal hizketaren inguruan, gai berri eta entretenigarria izanik hauxe.

Programa 2001-2002 ikasturtean jarri zen martxan eta lau ikastetxetan frogatu zuten lehendabizi: Alaitz institutuan, Lekarotzeko institutuan, Biurdanako institutuan eta Lizarrako ikastolan. Emaiza baikorrak izan zituztenez, 2002-2003 ikasturtean beste ikastetxehuetan ere jarri da martxan: Nafarroan Garraldako institutuan, Etxarriko-Aranatzeko Andra Mari ikastolan, Eunate ikastetxean, Altsasuko institutuan, Zizurreko institutuan eta Gipuzkoan Aretxabaletako Almen ikastolan, Lasarte-Oriako institutuan eta Landaberri ikastolan.

Arduradunek adierazi digutenez, datorren ikasturtean ere jarraitzeko asmoa dute, oraingoz hamabi ikastetxetan: Altsasu, Barañain, Berriozar, Burlata, Doneztebe, Garralda, Larrainzar eta Otsagiko institutuetan, Iruñeko Eunate eta Iturrama institutuetan eta

Donostiako hiru ikastetxetan. Azpeitiko gaztetxoak ere izango dute *Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean* programarekin gozatzeko aukera. Azken herri honetan zortzi talde osatu dira.

Euskaraz ligatzen, adarra jotzen eta haserretzen

Programa honen baitan antolatutako saioak dinamikoak eta jolasez beteak izaten dira. Jolas hauek bi orduko bost saioetan egiteko antolatuak daude eta saio batetik bestera 15 eguneko tarte egon ohi da jarraipen bat izan dezaten eta ikasleek edukiak barnera ditzaten.

Lagunarteko hizkera lantzeko hiru gai aukeratu dituzte nagusiki eta gai horren inguruko esalmoldeak eta hiztegia lantzen dituzte. Aipatu gaiak haserretzea, adarra jotzea eta ligatzea dira. *“Gai hauen deigarritasuna ezin uka daiteke, baina hiru atal hauetako esalmoldeak lantzeaz gain, bestelakoak ere landu daitezke baldin eta sortzen*



badira edo egoerak hala eskatzen badu” argitu digu Iñaki Eizmendik.

Azken urteetan euskararen normalizazioaren inguruan lanean aritu denak ez du ukatuko egoera informaletan euskarazko erregistro kolokiala lantzearen beharra handia dela. Herrialde euskaldunetan ere, gaztelania edo ingelesa askotan aukeratzen dira erregistro kolokial gisa erabiltzeko, nahiz eta euskarak horretarako aukera eskaintzen duen. Eta oraindik gehiago nabarmentzen da gaztelaniarako joera hori euskararen egoera hain ona ez den tokietan, noski. Gainera, ikastetxeetan beti irakatsi izan ohi da hizkuntza formal, eta informala lantzeari ere bere garrantzia emateko garaia da.

Lagunarteko Hizketarekin Jolasean programarekin alderdi horiek landu nahi dira, baina batez ere gazteek hizkuntzarekin jolastea eta ondo pasatzea da helburu nagusia. *“Gazteei beraiek erabiltzen dituzten esamoldeak adierazteko aukera ematen zaie eta berriak ere eskaintzen zaizkie”* diosku Jaimen Altunak. *“Jakina da ingurunearen eta komunikabideen eragina oso handia dela eta programa honek ez dituela ikasle hauen ohiturak bat-batean aldatuko, baina esamolde erabilgarrien berri emateaz gain, erabiltzeko eta berriak sortzeko gonbitea luizatzen zaie, horretarako motibazioa pizteko helburuarekin”*.

Hori dela eta, metodologiak garrantzi handia duela azpimarratzen dute programaren arduradunek. Lehen aipatu bezala, metodologia erabat dinamiko eta parte-hartzailea da eta jokoaren nahiz antzerkiaren bidez garatzen dute. *“Horretarako, dinamizatzaileak edo saioen gidariak ere gazteak dira eta horrek berdinetik berdinerako tratuak eskaintzen duen gertutasuna eta enpatia ditu abantaila gisa. Beti ere, normalean irakasle batekin edo helduago batekin jokatu ez luketen naturaltasunez jokatzeko bidea ematen die gazteei detaile horrek”*. Begiraleek, beraz, dinamikoak eta parte-hartzea erraztuko dutenak izan behar dute. Beraiek izango dira esamoldeak zaindu

beharko dituzten lehenak, kontuan hartu behar baitute beraiek direla gazteentzat eredu, hau da, ezin dute esamolde batzuen erabilera bultzatu beraiek ez badituzte sekula erabiltzen eta erabat arrotzak egiten baldin bazaizkie. Horregatik, ikasleengandik gertuko hizkera erabiltzea ere garrantzizkoa da. Hori lortzea ez da hain erraza izaten euskararen tokian tokiko izaera dela eta, baina ahalik eta egokiena izan dadin ahalegindu behar dute.

Bestalde, euskarak gertutasuna adierazteko duen erregistro naturala hitanoa da, baina hitanoa inoiz entzun ez duten gazteekin hika aritzeak helburuak lortzen lagundu baino oztopatu egin dezake, gazteen eta begiraleen artean konplizitatea eta giro eroso sortzea zaila izango baita. Hala ere, hitanoak presentzia duen tokietan hika erabiltzea bultzatzen da, jakina.

Gazteekin erregistro kolokiala lantzeko garaian, kontuan hartu beharreko oinarri nagusiak bi dira hasiera batean. Batetik, gazteengandik gertukoak diren eta benetan erabiltzeko aukera izango duten esamoldeak eskaintzea. Horregatik, nahiz eta esamolde batzuk oso aberatsak izan, ez dituzte erabiltzen edo bultzatzen. Eta bestetik, esamolde horiek erakargarriak izan behar dute, graziadunak eta esanguratsuak. Gauzak honela, esamoldeen sailkapena egiterakoan ere bi irizpide izaten dituzte: zein egoeratan erabiltzeko esamoldeak diren (ligatzeko, adarra jotzeko...) eta euskararekin zein lotura duten. Hain zuzen ere, euskararekin duten lotura hori aztertzeak merezi du eta

Helburua da gazteek hizkuntzarekin jolastea eta ondo pasatzea haserretzen direnean, elkarri adarra jotzean eta ligatzean.



beharrezkoa da arduradunen hitzetan.

Esamoldeak bereizteko irizpide hauek jarraitzen dituzte: tradizioa duten esamoldeak edo euskaldun peto-petoek erabiltzen dituztenak (adarra jo, pitzatuta egon...), euskal senik ez dutenak, euskaraz pare-parekorik izan ez dutenak (esate baterako, liatu beharrean korapilatu, edo enrollatu beharrean kateatu esatea), euskaraz pareko ordainak badituztenak (tocar los huevos, arrautzak ukitu moduan hartzen denean, potroak zirikatu esatea egokiagoa dela erakustea) eta azkenik, euskaldun zaharrek aspalditik erabiltzen dituztenak (ume ostia, txistosua...). Esamolde hauek aukeratzekoan, beraz, berauen egokitasuna zaintzen dute, eta baita balio aldetik egokiak diren edo ez ere, hots, sexistak, mingarriak eta baztertzailak alboratu egiten dituzte.

Ikastetxetik kanpo ere erabilgarria da

Programak duen izaera irekia dela eta, eskolaz kanpo ere egin daitezke saio hauek, eta zergatik ez, egun osorako irteera eta aisialdi garaietan ere bai, horretara moldatuz gero.

Modu honetan metodologia ez da ikastetxean erabiltzen den ohikoa, aisialdiarekin zerikusi gehiago duena baizik. *“Egoera komunikatibo naturalak sortzen ahalegintzen gara. Egitasmo antolatu bat den heinean, badakigu erabateko naturaltasuna sortzea ia ezinezkoa dela, baina egoera horietatik gertu daudenak probokatzea posible izaten da”* gaineratzen du Altunak.

Ekintza horiei guztiei laguntzeko Kuxkuxeroa izeneko txatgunea eta *“lagunarteko hitzontzia”* izeneko liburuxka ere atera dituzte, esamolde erabilgarrienekin, esku-eskura. •

kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

EVLANG europar programa



Itziar ARAMAIO

Euskal filologoa (Geneva, Suitza)

EVLANG (“Eveil aux langues”) berrikuntza pedagogiko eta ikerketarako europar programa da. Proiektu hau, Europar Batzordeak bultzatuta, Sócrates-Lingua ekintza taldearen barnean dago. 1997-2001 urteen artean, froga legez, Michel Candelierek (Université René Descartes-Paris V) koordinatuta, Austrian, Espainian¹, Italian, Frantzian eta Suitzan jarri zen martxan.

EVLANG proiektuak, EOLE proiektuaren antzera (**hik hasi**, 77), bere oina-

riak 80ko hamarkadan ditu, Eric Hawkins-en eskutik Erresuma Batuan sortuz LANGUAGE AWARENESS mugimenduan².

EVLANG programa ez da zuzenean hizkuntzen irakaskuntzaz arduratzen. Programa honek, ikasleei hizkuntza eta kultur aniztasunaren aurrean jarrera positiboa sortarazten laguntzen die, beraiek eguneroko bizitzan bizi duten errealitate linguistikoko eta kulturalerantz hurbilduz eta horretaz jabe araziz. Era honetara, *ikasleek, beraien inguruan bizi duten errealitatearen iruditik hasita, hizkuntzak ikasteko beharrezko diren jarrerak eta prozedurak garatuko dituzte.*

EVLANGek hiru arlotara hedatzen du bere jarduera:

1. *Irakasleen hezkuntza:* EVLANGek proposatutako programak beraien ohiko programazioaren barruan praktikan jartzeko gai izan daitezten.

2. *Euskarri didaktikoen produzioa:* oinarritzko hezkuntzan azken urtea egiten dabiltzan ikasleei zuzendua. Urte batetik urte t'erdira irauten duen

hezkuntza programa da.

3. Programa hauen *ebaluaketa kuantitatibo eta kualitatibo*³ egin.

Proiektu honek proposatzen duen **formazioaren bereizgarria**, honek ematen dion zentzuan datza. Hau da, EVLANGek, bere osotasunean, lau helburu nagusi ditu, eta horiek ematen dio nortasuna proiektu bezala. Lehendabizi, irakasleen artean hizkuntzei buruzko hausnarketa bat sorrarazi nahi du, dezentralizazio baterako baldintza egokiak sortuz. Bigarrenik, ikasleengan hizkuntzen irakaskuntzaren motibazioan eragina izango duen curiositatea suspertu nahi du. Hirugarren ezaugarria, ikasleei galderak edukitzea normala dela sinestaraztea da, eta galdera horien erantzunak beti ez ditugula izango jakinaraztea ere bai. Eta bukatzeko, laugarren eta azken ezaugarri bereizgarria eskolari buruz hausnarketa orokor bat egiteari begira dago, eta bereziki, hizkuntzen aldeko apustuari.

EVLANGek, arestian aipatu legez, **Lehen Hezkuntzako azken bi ikasturteetan** (8tik 12 urte bitarteko ikasleak, lurraldearen arabera) **garatzen ditu bere**

¹ Espainian, katalanek baino ez zuten parte hartu. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Hizkuntzen Didaktikarako Departamentua kargutu zen bereziki proiektu hau martxan jartzen, Artur Noguerolen gidaritzapean (NOGUEROL Artur eta beste, 2000). Gaur egun ere, ildo honetatik ari dira lanean.

² LANGUAGE AWARENESSek dakartzan ideietatik indarririk handiena hartu zuena, hizkuntzaren arloan landu beharrezkotzat jotzen diren sei arloen proposamena da. Eric Hawkins-entzat, aztertu behar diren sei arloak, ondorengo hauek dira: komunikazioa, hizkuntzaren funtzionamendua, hizkuntzaren erabilera soziala, hizkuntza idatzia eta ahozkoa aurrez aurre aztertu/konparatu, hizkuntzen aniztasuna eta eboluzioa, hizkuntzen ikasketa (HAWKINS, 1987).

³ Ebaluazio kuantitiboaren eginkizun operatzailea, Bourgogne Unibertsitateko Ekonomia Hezkuntzako Ikerketa Institutuari egotzia dago (IREDU). Ebaluazioak egiteko orduan, ikertuak izango diren taldeentzat eta talde erreferentzialentzat, aurrebaluazio bat egingo da, eta beste bat azkenean, gaitasun eta jarreraren garapena ikasturtean zehar nolakoa izan den ikusteko.

proposamenak. Proiektua martxan jarri zen lehenengo urtean (1997ko abendutik 1998ko azarora) produkzioari eman zitzaion garrantzia gehien, eta bigarren eta hirugarren urteetan ebaluazioak hartu zuen pisua. Hala ere, esan behar da, lehen urteko ahaleginen zati handi bat ebaluazioaren prestakuntzara ere bideratu zela, ondorengoetan produkzioaren lanketan eta euskarrien berraztertzean aritzeko.

EVLANGen **euskarri didaktikoen** gehiengo linguistikoa ez diren jakintzagaietan oinarritzen da, *aurkikuntza pedagogikoari* begira daudelarik metodologikoki.

Euskarri didaktikoen prestakuntzan, alde batetik, hezkuntza maila ezberdinetako irakasleak arituko dira elkarlanean (Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko irakasleak, batik bat); eta bestetik, programa honetan parte hartzen duten bost lurraldeetako hezkuntza esparru ezberdinetako pertsonak.

Euskarri hauek "baliagarriak" izan daitezten, sistematikoki frogan jartzen dira lurralde ezberdinetako ikasgeletan. Frogan jarri aurretik, irakasleak prestatu egiten dira EVLANGen proposamen didaktikoa eta "filosofia" aurrera egokiro eramateko gai izan daitezten. 1998-1999 ikasturtean horixe egin zen. Hau da, proiektu honetan parte hartuko zuten bost lurraldeetako 150 irakasle prestatu ostean, EVLANGek proposatzen zituen euskarri didaktikoa frogan jarri ziren 2.200 ikaslerekin. Euskarriotan lantzen zirengaiak lotura zuzena zeukaten 80ko hamarkadan Britainia Handian aintzat hartu eta garatu zen "Language awareness" mugimenduak proposatzen zituenekin (HAWKINS, E (1987)). Hizkuntza ikasketarako tresna didaktiko hauek, kontuan hartzen dituzte ikaslea murgilduta dagoen hizkuntza eta errealitate kulturala. *Ez datza oinarrizkoa edota gelako ikasle guztien hizkuntzak ikastean, baizik eta beste hizkuntza batzuetako elementu, ezaugarri edo eta portaera jakin batzuk ezagutzean.*



EVLANGek proposatzen dituen formazio hauen **prestakuntzak lau fase** nagusi ditu:

1. 12tik 18 ordura bitarteko oinarrizko modulu bat, tresna erabilkorak sortzeko, bideratze didaktiko bat proposatzeko eta zalantzak zein galderak egiteko.
2. Autoprestakuntzarako sostengu bat.
3. Taldean egindako praktiken analisi.
4. Egindako praktikaren balorazioa.

Baina zein dira zehazki ikasleei begira EVLANGek dituen **helburu** nagusiak?

Proiektu europar honek, hezkuntza bide, linguistikoki eta kulturalki plurala den gizarte solidario baten eraikuntzan lagundu nahi du, gizartea aldatzeko hezkuntzatik hastea erarik zuzenena dela uste baitu. Helburu nagusi hori duelarik, kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean ikasleei **jarrera, gaitasun** eta gai honen inguruko **jakitea** garatu nahi die.

Jarrerei dagokionez, lau puntu dira bereziki jorratu nahi direnak:

1. Kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean jarrera positiboa zein interesa sortzea ikasleengan.
2. Ikasleei, hizkuntzak ikasteko grina sortzea.
3. Irakasleengan zein ikasleengan hizkuntza ezezagunen aurrean konfiantza lortzea.
4. Ikasleengan mintzaira eta hizkuntzen funtzionamenduarekiko ku-

riositatea eta funtzionamendu horien ikasketarako interesa sortzea.

Gaitasunei dagokionez, bestalde, hauek dira EVLANGek dituen helburu nagusiak:

1. Ikaslearentzat ezezagunak diren hizkuntzen aurrean analisi pauso minimo batzuk burutzeko gaitasuna eskuratzeta, hizkuntza horren ezaugarri garrantzitsuenak ulertzea, eta hizkuntza ezezagun horren idatzizko zein ahozko enuntziatu baten zentzua zein den jakiteko gaitasuna lortzea.

**Proiektu europar
honek, hezkuntza
bide, linguistiko-
ki eta kulturalki
plurala den gizarte
solidario
baten eraikuntza
lagundu
nahi du, gizartea
aldatzeko hez-
kuntzatik hastea
erarik zuzenena
dela uste baitu**

⁴ EVLANGen formazio programari buruzko informazio gehiago: MACAIRE, D. (1998).



2. Hizkuntza ezezagunetan ikaslearentzat ezezagunak diren fonemak bereizteko gaitasuna lantzea.

3. Idatzi alfabetikoak zein ez alfabetikoak, edo ikaslearentzat ezezagunak diren hizkuntzetan erabili ohi diren hainbat soinu eta konekzio grafiko dagozkien hizkuntzetan finkatzeko gaitasuna eskuratzea.

4. Hizkuntza ezezagun bateko idatzizko zein soinuak elementuak ezaizte eta memorizatzeko gaitasuna lortzea.

5. Ikerketa metalinguistikoan beharrezkoak diren erreferentzia tresnen erabilera egiteko gaitasuna lortzea.

6. Helburu komunikatzaileekin zenbait hizkuntzen erabilera minimoa lortzea.

7. Kode linguistiko komun bat egon ez arren, hizkuntza ezberdinetan mintzo diren pertsonen artean komunikazio minimo bat lortzea.

8. Hizkuntza ezezagunak identifikatzeko gai izatea.

Eta azkenik, **jakingaiei** dagokionez, hauek dira jakin beharrezkoak jotzen diren puntuak:

1. Hizkuntzen artean ezberdintasunak eta antzekotasunak daudela.

2. Hiztunen jatorri geografiko eta sozialaren arabera, eta lan mota bakoitzari dagokion erregistroaren arabera, hizkuntza oro aldakuntzen menpe dagoela.

3. Hizkuntzen ikasketa prozesuko zenbait berezitasun ezaizteak.

4. Munduan zehar milaka hizkuntza

daude eta, etengabeko migrazio mugimenduen ondorioz, hainbat lurraldetan gero eta hizkuntza gehiagotan hitz egiten dela ohartzea.

5. Hizkuntzak eta kulturak itxita ez dauden munduak dira, herrialdeek dituzten elkarren arteko kontaktu eta oinarri historikoak bide.

Bukatzeko, esan, 2001. urtean, **esperientziaren ebaluaziorako orduan**, proiektu honetan parte hartu zuten bost lurraldeek, **ondorio** berbera atera zutela: *EVLANGek proposatzen duen formazioa oso positiboa dela kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean jarrera, gaitasun eta jakintza positiboak sortzeko ikasleengan, eta beraz, zeinahi eskoletan landu beharrezkoak jotzen dute.*

(www.jaling.ecml.at/French/Evlang.htm#EWII) •

Oharrak:

1) EVLANG proiektuan interesaturik dagoen orok, informazio gehiago eta arduradunekin zuzenean harremanetan jartzeko hainbat helbide, helbide elektronikoa, telefono eta abar ondorengo web orrian aurkitu ahal izango ditu: www.jaling.ecml.at

2) Bibliografia gehiago nahi duenak, ondorengo web orrian aurkituko du: www.jaling.ecml.at/pdfdocs/annex5.pdf.

Bibliografia

- CANDELIER, M., PAPARAMBORDE, S.: *EVLANG-L'éveil aux langues à l'école primaire*, 2001, www.jaling.ecml.at/French/Evlang.htm

- CANDELIER, Michel: *Evlang-un programme européen d'éveil aux langues à l'école primaire*, Présentation du projet au colloque Language Awareness, Québec 1998.

- CANDELIER, Michel: "L'éveil aux langues à l'école primaire, le programme européen EVLANG", in BILLIEZ, J.: *De la didactique des langues à la didactique du plurilinguisme*, Hommage à Louise Dabène, CDL-Lidilem, Grenoble, 299-308 (1998).

- CANDELIER, Michel: Rapport concernant les objectifs, EVLANG, (septembre 2001) www.jaling.ecml.at/French/Evlang.htm

- CAPORALE, D.: "L'éveil aux langues : une voie nouvelle pour l'apprentissage précoce des langues", in LIDIL, 2 (1990), 128-141.

- GENELOT, Sophie: *Evaluation quantitative du cursus EVLANG*, Rapport final, Juillet 2001 www.jaling.ecml.at/French/Evlang.htm#EWII

- HAWKINS, Eric: *Awareness of language: an introduction*, Cambridge University Press, Cambridge 1987.

- MACAIRE, Dominique: "EVLANG: une formation pour ceux qui ont donné leur langue au chat?", in BABYLONIA, 2 (1999), 59-63.

- NOGUEROL, Artur eta beste: "Apprendre llengua (i altres coses) des de la diversitat", in *Perspectiva i diversitat* 10 (Novembre 2000), UAB, Barcelona.

- www.jaling.ecml.at/French/Evlang.htm#EWII

Hitzaldiak

Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko, interesgarriak gerta daitezkeen
HITZALDIAK

∞ XXII. Udako Ikastaroak

Ekainetik irailera arte hainbat ikastaro, mintegi... interesgarri daude gai hau lantzeko. Adibidez: aniztasunaren tratamendua: etorkinak hezkuntza sistema; Enfoque discursivo y aprendizaje de segundas lenguas: nuevas perspectivas; La convivencia lingüística en la diversidad...

Non: DONOSTIA

Noiz: 2003ko ekainetik irailera

Informazioa:

www.sc.ehu.es/cursosverano

cursosverano@sc.ehu.es

Tel.: 943 21 95 11

∞ IX. Congrès International de L'Association pour la recherche interculturelle

Non: AMIENSen (Frantzia)

Noiz: 2003ko ekainaren 30etik uztailearen 4ra

Informazioa:

www.u-picardie.fr/ARIC/

congres.aric@u-picardie.fr

∞ Conference on identity and diversity

Non: ZARAGOZAn

Noiz: 2003ko urriaren 9tik 10era

Informazioa:

Beatriz Penas

bpenas@posta.unizar.es

Tel.: 97 676 15 28 / 97 621 84 55

Carmen Lopez:

clopez@fsf.uned.es

Tel.: 91 398 69 47

∞ Scolariser la petite enfance?

Non: GENEVA

Noiz: 2003ko irailaren 15etik 18ra

Informazioa:

www.agora.unige.ch/sred/ColloC

jean-jacques.ducret@etat.ge.ch

Tel.: 0041 22 327 42 99

∞ Oral Language of School Children: Acquisition, Teaching, Remediation

Non: GRENOBLEn (Frantzia)

Noiz: 2003ko urriaren 23tik 25era

Informazioa:

oral2003@grenoble.iufm.fr

Tel.: 00 33 476 74 73 37

Irakurleen txokoa

Txoko hau zeurea duzu, irakurle, eta bi aukera luzatzen dizkizugu: galderak egitea eta erantzunak ematea.

Lehenengoak kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkek, galderak eta zalantzak bideratzeko aukera ematen dizu. Horretarako, bi helbide hauetakoren batera idatzi besterik ez duzu egin behar:

itziaramayo@msn.com edo aldizkaria@hikhasi.com

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzea eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.

Bigarren aukera erantzuna ematearena da. Hemen agertzen diren galderei edonork eman diezaieke erantzuna, proposamena, aholkua, laguntza, iradokizuna... bi modutara: galdera egiten duenarekin zuzenean harremanetan jarritz edo aldizkari-
ra idatziz (aldizkaria@hikhasi.com).

Hartu-emanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezkek denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaitetz!

"Duela urtebetetik 5 urteko haur kolonbiar bat dugu gure ikastetxean. Ez hizkuntza ikasteko orduan, ez beste haur euskaldunekin integratzeko orduan, ez du inolako arazorik izan. Baina gure kezka zera da: nahiz eta ikastetxeko haur etorkin bakarra bera izan, bere ikasgelan behinik behin bere lurraldearen eta kulturaren ezaugarriez hitz egin beharko al genuke, ala orain arte bezala beste haur euskaldun bat izango balitz moduan tratatu eta bere jatorrizko kulturari buruz ezer ez aipatu?"

Berriatuko herri ikastetxea
014096aa@hezkuntza.net

Antzeko esperientziarik izan baduzu eta proposamenik, aholkurik edo iradokizunik baldin baduzu, erantzun iezaiezu, eskertuko dizute eta!

Ikastoletako Eleanitz proiektuko lehen promoziokoak DBH arrakastaz amaitu du

Maiatzaren 9an "Eleanitz Proiektuaren" arrakastaren berri emanez prentsaurreko bat egin zuen Ikastolen Elkarteak. Bertan, proiektuaren nondik norakoei eta aurrera begirako erronkei buruz aritu ziren.

Proiektu honetatik atera den ikasleen lehen promozioa 1991-92 ikasturtean hasi zen 4 urterekin ingeleseko eskolak jasotzen. 12 urte pasa ondoren, aurten bukatuko dute DBH. Hasiera hartan zortzi ikastolak hartu zuten parte pixkanaka egituratzen joango zen proiektu berri hartan, eta gaur egun 65 ikastola, 1.030 gela eta 20.000 ikasle daude inplikaturik. Garai hartan baziren eleaniztasunaren inguruko zenbait programa AEBetan eta Kanadan, baina ez ziren nahikoak izan barne kezkek aieratzeko.

Kezka horien artean euskarari kalte egitearena zegoen. Hizkuntzen nahasketaren onurak ere ez zeuden oso garbi eta baliabide eta materialen nondik norakoa nola bideratu ere kezken artean zegoen.

Honela gogoratzen du hasieratik proiektu honetan murgildu zen Arantxa Zugasagasti irakasleak: *"Zortzi irakasle bakarrik ginen hasieran eta orain 200 baino gehiago gara jada. Garbi dago eskolak ingelesez emateak ekartzen dituen onurak ez direla gutxi. Prestakuntza lana ez da erraza, oso parte-hartzailea baita eta materialen prestaketa ere eskatzen baitu. Edozein modutan, benetan merezi izan du proiektuan sinestu eta aurrera jarraitzeak".*

Kezka horiei guztiei aurre egiteko ebaluazio jarrairi garrantzi handia eman zaio, alderdi ugariako ebaluazioari: hizkuntzena, ikasleen adimenarena, proiektuaren baliagarritasunarena... Jarraipen Ikerketa horiek antolamendutik kanpo zeuden unibertsiaterako irakasle batzuek egin dituzte.

Ikerketa horretan bi talde hartu zi-



Eleanitz proiektuan murgilduta dabilzan ikastoletako irakasleak eta ikasleak prentsaurreko egunean.

ren kontuan. Talde batean proiektua aplikatu zen eta bestean 3. mailan hasi ziren ingelesa ikasten. Jaso diren emaitzak ingelesa ikasten 4 urterekin hasi zirenen aldekoak izan dira. Horien sormena, adimenaren malgutasuna, harremanetarako gaitasuna, hizkuntza gehiago ikasteko gaitasuna eta Europar bizitzeko ahalbidetzea garatuagoak agertu dira.

Pixkanaka-pixkanaka ikasmaterialak sortzen eta hobetzen joan dira, eta irakasleen prestaketa ere oso modu konstantean eta hainbat prestakuntza tailerren bidez eraman da aurrera.

Helburuetako bat ikasleak eleanitzak izatea da, hau da, euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa edo alemana ezagutzea eta komunikazio tresna gisa erabiltzeko gai izatea. Ingelesaren kasuan, ESOL eta Oxfordeko frogen arabera, 7. maila edukitzea lortu nahi da, kontuan harturik Oxfordeko Unibertsitatera sartzeko 8. maila eskatzen dutela. Ez da ez erronka makala, baina dirudienez, ez dago errealitatek oso urruti ere.

Proiektuaren baliotasuna garbi geratu da, beste lau hizkuntzatarata itzulia izan baita: neerlandera, gaztelania, italiarra eta gaeliko irlandarrera, hain zuzen ere. 11 herrialdeetara, 5 hizkuntzatarata eta 95 eskolatarata zabaldua izan da. Horien artean Britainiako Hezkuntza lehendakari Yannick Baron Euskal Herrira etorri zen eleanitz proiektua Britainian nola zabaldu den eta berarentzat zein bali-

garria den adierazi zuelarik.

Honela, Erromako, Birminghameko eta Granadako Unibertsitateek, Amsterdamgo Pedagogia Institutuak eta Cervantes Institutuak hartu dute parte proiektuan Ikastolen Elkartearen gidaritzapean eta Europako Batzordeko Socrates Lingua proiektuen diru laguntzarekin. Nazioarteko hedapen honetaz gain, Europako Komisioak eta Madrilgo Hezkuntza Ministeritzak emandako sariak ere jaso ditu.

Prentsaurrekoan garbi utzi nahi izan zuten ikasleek zuten garrantzia eta beraien parte-hartzea bultzatu nahi zutela. Hori dela eta, Ainhoa Jimenez ikasleak bere esperientzia zein aberasgarria izan den adierazi zuen. *"Haur eta Lehen Hezkuntzan ahozkoa lantzen genuen batez ere, DBHko lehen zikloan gai ezberdinei buruzko lanak egiten genituen eta DBH bigarren zikloan, berriz, Giza-Zientziak ikasgaia ingelesez jasotzen genuen. Esperientzia oso ona izan dugu".*

Pedro Aranburu Ikastolen Elkarte-ko lehendakariak lankidetzat zabala aipatu zuen eta batez ere, ordainketaren zama jaso duten gurasoei, ikasleei, Eusko Jaurlaritzari eta Europako batzordeari eskerrak luzatu zizkien. Aurrera begira erronka berria da proiektuarekin jarraitzea eta batxilergoan eta unibertsitatean ere ingelesaren eta hizkuntzen lanketa garatzea.

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.


Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak ekaina

Argitalpenak



Hiru ahizpak
Juan Kruz Igerabide
Erein

Liburu honetan aitarik gabe gelditzen diren hiru ahizpa jostunen istorioa kontatzen da. Hirurak amarekin bizi dira eta harreman handia dute herriko medikuarekin. Erlazio horrengarapenak eta familiaren eta medikuren arteko harreman estuak ondorio laztzak ekarriko ditu, batez ere ahizpa gazteenarengan. Ageriko eta ezkutuko gertaeren artean korapilatzen da •



Plisti-plasta
Ibaizabal

Haur txikientzako bainuontzian jolasteko irudiz osatutako liburu-txoa da. Azal biguna du eta euskarri bat ere badakar liburuxka ur gainean igeri ibili dadin. Ipuia kontatzeko poster txiki batekin dator eta kolore biziak dira nagusi. Sail honetan lau titulu plazaratu dituzte: Patxo itsasontzia, Koro kaioa, Adela igela eta Arturo karramarroa •



Udako koadernoia
Ibaizabal

Hamar urteko haurrentzat pentsatu eta prestatutako koaderno honetan Euskara, Inguruaren Ezaguerak, Matematika eta Gaztelania lantzeko aukera izango dituzte udaran. Neina izeneko erdi extralurtar erdi robot dirudien pertsonaia berezi baten gidaritzapean. Koloretsua eta entretenigarria da eta fitxa bakoitza bukatu-takoan ikasleak saria jasotzeko aukera izango du •



Etxe bitan bizi naiz, eta zer?
Miren Agur Meabe
Elkarlanean

Gurasoak banandu zirenetik aita etxe batean bizi da eta ama bestean; Sara, berriz, bietan. Egileak maisutasunez eta sentsibiltate handiz hurbildu da gaur egun etxe askotan bizi den auzi honetara: gurasoen banaketa eta horrek haurrei eragiten dizkien nahasteak eta arazoak. Ikuspegi baikorretik begiratzen dio auziari •



Misterio doktorea eta Milango misterioak
Alfredo Castelli eta
Lucio Filippucci
Jean François Sauré

Magia, misterio eta abenturarik abenturazaleenean sartu nahi duen orok aukera aparta izango du irudi oso errealistez eginiko komiki honekin. Misterio doktoreak direnak eta ez direnak pasa behar izango ditu Milaneko herrian ba-keajartzeko •



Hiria, haurrak eta mugikortasuna

IHOBE eta Eusko Jaurlaritza Herrietako ordezkari politiko irakasle, ikastetxeetako zuzendari eta gurasoentzat da argitalpen berri hau. Batetik, gure haurrak kaleko poluzio eta harriskuetatik babesteko eta bestetik, beraiei ingurumena babesten erakusteko, neurri praktiko batzuen adibideak, estatistika zein irudiak erabiltzen ditu, Europako zenbait erreferentziarekin •

Irriak behar ditugulako



Bazen behin pailazo talde bat, baziren behin Takolo, Pirritx eta Porrotx. Baziren. Eta guk inoiz ulertuko ez ditugun arrazoiengatik baztertu egin zituzten, eta orain guk ezin ikusi.

Denok dakigu zein den Euskal Herriko egoera eta honen ondorioak zabaltzen ari dira arlo guztietara, baita inoiz iritsi behar ez diren arloetara ere.

Pertsona orok du eskubidea bere iritziko politikoa edukitzeko eta ezin da onartu eta ez dugu onartzen, boterearen iritziko bera ez dutenen baztertzeari. Mendekutik urruti ez gabiltza.

Oso gertukoak izan ditugu Takolo, Pirritx eta Porrotx, oso geureak; lasartearrak gu bezalaxe. Beraiek irudikatzen diguten mundua ere oso hurbila dugu: amona Josefina, baserria... geure lurreko ipuin eta kontaketa.

Zenbat jaialditan ikusi ditugu haurren aurpegi inozoak alaitzen, zenbat poz eta alaitasun banatu dute gure ikastetxetan, antzokietan, herriko plazetan. Zenbat eta zenbat aldiz!

Izan dugu irakasleok Takolo, Pirritx eta Porrotxen beharra; izan ere, neurri batean gure haurrek euskaraz ari diren pailazo zintzoak maitatuz ikasi zuten eta ikasten dute euskara maitatzen. Txiki-txikitatik, haur eskolatik hasita erabili ditugu beraien abestiak, jolasak, dantzak... eta guk bezala, Euskal Herri osoko ikastetxetan.

Irakaskuntzaren oinarriko helburuetariko bat haurrek ingurunean txertatzea da eta inguruko kultura eta ohituretan hezteak. Gure geletan lan hau burutzeko baliagarria izan da pailazoek egin duten lana, ateratako materiala eta baita Hik Hasi-rekin elkarlanean sortutakoa ere.

Urteetan zehar gure pailazo hauek sortu eta zabaldu duten lana (abestiak, bideoak...) ezinbestekoa bihurtu zaigu eta asko erabili dugu lehenengo aldiz hurbildu diren ikasleekin hizkuntzan murgiltzeko modu erraza eta alai bilakatuz, curriculum aberasteko errekurtso ezin hobea gehituz.

Pailazo zintzoak eta jatorrak Takolo, Pirritx eta Porrotx. Emanaldietan elkarri adarra joko diote; bihurrikeriaren bat edo beste egingo dute, baina beti ongia gailentzen da, lagun izaten bukatzen dute parrez eta musuka. Bitartean, bizitzari bizitasuna, grazia eta piperra ematen saiatuko dira behar duenari laguntza eskainiz, baita Nikaraguaraino joan behar bada ere. Nork dio gaiztoak direla?

Beren emanaldietan alaitasunez lantzen dituzte gaiak eta balioak, eta oso garbi azaltzen dira laguntasuna (borroka eta agresibitate ez), elkartasuna eta kultur aniztasuna (kintxoak), tradizioari begirunea (jolasak eta herri festak), ingurumenari errespetua (baserriaren mundua, natura...). Arazoen aurrean beti planteatzen dute irteera irudimentsu bat. Hori guztia ikusi ondoren badago oraindik balio eza aurpegiratzen dienik.

Ez da alferrikakoa zuen lana; gurekin batera landu dituzue alaitasuna, hizkuntza, euskal sena, elkartasuna, maitasuna. Beraz, horregatik, oraindik ere, agian inoiz baino gehiago, gurekin behar zaituztegu.

Irrien Lagunak Taldeko Lasarte-Oriako irakasleak

Irri egin dezagun

Etor zaitez gurekin

Bildu gure festara!

Ekainaren 15ean Lasarte-Orian jaialdia

12:00etan Kalejira

13:30ean Euskal Herriko artistak kantuan

14:00etan bertso bazkaria


16:00- 17:30 Bazkal ondorengo tertuli jaialdia hau-

rentzako jolasak eta tailerrak

17:30-19:00 Haurrentzako ekitaldia

19:00etan Irrien lagunak kantuan

19:30etan Tapiaren dantzaldia



Freskatu zaitez IV. Hik Hasi Udako Topaketetan

Inoiz baino ikastaro gehiago antolatu dira aurrean uztaile hasieran ospatuko diren **hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoetan**, irakaskuntzan dabilen behar, gabezia eta interes anitz eta zabalei erantzun asmoz: 36, hain zuzen ere.

Aipatzekoa da, izena emateko epea berez maiatzaren 23an bukatu zela, baina nahiz eta batzuk kopuru mugatuak izan, oraindik lekua gelditzen da, eta gehienetan izena emateko aukerak irekita jarraitzen du. Tartean bada dagoeneko bikoiztu denik ere, arrakastatsuen *“Haurrentzako masajea”* ikastaroa izan delarik. Ez bi aldiz pentsatu, **animatu eta freskatu zaitezte** Hik Hasi Topaketetan.

Aurkezpen ekitaldia ekainaren 30ean, astelehenean

Ikastaro hauei guztiei harrera egiteko, aurkezpen ekitaldi bat antolatu da EHUKo Teoria eta Historia Sailaren laguntzaz eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirola, Kultura eta Euskara Departamentuarekin batera.

Aipatzekoa da hasierako ekitaldi horretan Bilbo eta Gasteizko EHUKo Irakasle Eskoletako hiru irakaslek es-

kainiko dutela hitzaldia. Hirurek ere, tesiak landu dituzte euskal testu liburuaren edukien inguruan, hauek sortu ziren momentutik gaur egun arte Euskal Herriari buruz eman duten ikuspegia aztertuz. Testu liburu horien zuzentasunaren gainean hainbat ondorio partekatuko dituzte, besteak beste.

Aurkezpen ekitaldia **Gipuzkoako Foru Aldundiaren tronu aretoan:**

- 18:00etan **Begoña Bilbao, Karmele Perez Urza eta Gurutze Ezkurdiaren hitzaldia:** *“Euskal Testu liburugintza XXI. mendearen atarian.”*

- 19:00etan **Aurkezpen Ofiziala.** Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, EHU eta Hik Hasi ordezkariek hartuko dute parte.
- Jarraian, **luntxa.**

Ikastaroak uztailaren 1etik 3ra

Goizeko 9:00etatik 14:00etara honako ikastaroak burutuko dira:

1- Jerome Bruner. 2.- Gutxieneko Informatika. 3.-Klik. 4.-Web orria. 5.- Power Point. 6.- “SPC” hizkuntza. 7.- Ipuinak bizi-bizian. 8.- Alexander teknika. 9.-Plastika adierazpena. 10.- Euskal dantzak. 11.- Antzerkia. 13.- Euskaraz jolasten. 14.- Jolas kooperatiboak. 16.-Psikomotrizitatea. 17.-Haurrentzako masajea. 18.- Musika Hezkuntza. 19.- Gustura irakurtzea. 20.- Literatur txokoa. 21.- Idazkera txarra. 22.- Hizkuntzaren trebaketa. 24.- Heriotza heziketan. 25.- Matematikaren historia.

26.- Gogo erabilketa. 28.- Artearen txokoa. Oteiza. 29.- Baratze ekologikoa. 31.- Irakaslearen rol aldaketa. 33.- Euskal kultura tradizionala.

Arratsaldeko saioak

Saio hauetan edonork parte har dezake, ikastaroetan jardun edo ez, hau da, libreak dira. Hasiera ordua 16:00etan izango da eta aukera hauek egongo dira:

Uztailak 1, asteartea

A- Sorkuntzarako heziketa

- Margotzea, buztina modelatzea eta dantza egitea plazer iturri bihurtzen duen modua agertuko da.

* **Benjamin BARANDALLA.** Donostiako Sorkuntzarako Heziketa zentroko arduraduna.

B- MAHAI INGURUA: *Euskal Eskola Publikoaren Legea ezarri zela 10 urte bete direnean, memento egokia izan liteke hausnarketarako.*

Uztailak 2, asteazkena

C- Matematikaren lanketa konstruktibismoaren ikuspegitik?

* **Lourdes MUÑOZ.** Donostiako Zuhaitzi EPko LHk irakaslea.

* **Pili LASALLE.** Errenteriko Cristóbal Gamon EPko LHko irakaslea.

D- MAHAI INGURUA: *Kulturantzatasuna gure eskolan.*

Amaiera bazkaria

Uztailak 3, osteguna, 14:30ean Tenik Klubean ikastaroen amaiera ospatuz.

historiak zertzeladak

“Bizkaiko institutua”. Bilboko “historiko” baten erretratua



Txomin GANBORENA

EHko ikertzailea

Lehen Gerrate Karlistaren ondoren, Madrilgo Gobernuan liberalismoa ezarri zen Foruen onarpenarekin batera. 1839ko urriaren 25eko legearen ondoren lasaitasun aldi bat ekarri zuen bai Bizkaiara eta bai beste probintzietara ere. Lasaitasun honek hezkuntza marko berri bat ekarri zuen, urte batzuk lehenago Cadizeko 1812ko hezkuntza ideien aldarrikapenean planteatu zen bezala.

Hezkuntza sistema berria hiru mailatan banatua geratu zen, eta haren administrazioa hiru aginte organutan, bai Gobernu zentralean eta baita euskal probintzietan ere:

-Goimailako irakaskuntza, estatua-
ren kontrolpean eta Madrildik zuzen-
dua.

-Erdi mailako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza, Probintzietako Diputazioen esku, nahiz eta Gobernu zentralak diseinaturikoa eta unibertsitate ezberdinek kontrolatutakoa izan. (gogora dezagun, XX mendeko 80ko hamarkada arte Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia Valladolideko barrutiarenak izan zirela).

-Eta azkenik, irakaskuntza orokorra eta Lehen Hezkuntzako botere municipalen esku geratuko litzake.

Bigarren Hezkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, XVIII. mendearen bukaeratik sumatzen zen bezala, bizkaitar gizarteko elite berrietatik etorririko seme-alaben formaziora egokituriko ikasketa zentro bat sortzeko beharra zegoen. Era berean, Erregimen Zaharrean Bizkaiko botere organoek Lehen Hezkuntzaren ondorengo hezkuntzarako tradizionalki eskainirik arretarekin batera, Probintziako Institutua ezartzeko oinarriak jartzea posible izan zen, hezkuntza errealitatearen zentro uniformatzaile bezala.

Bilboko burgesiaren interesa oso nabarmena zen beraien seme-alaben hezkuntza beharrak eta prestakuntza egokia landuko zituen ikasketa zentro baten alde. XVII. mendean Jesuiten Ikastetxea eta XIX. mendearen hasie-

ran Humanitate Eskolak jarri zirenetik, finantziazioan indar handia nabaritu zen, gero probintziako botere politiko eta ekonomikoaren zuzentzaileak izango ziren gazteriari prestakuntza emateko, hau da, zentroak martxan jartzeko.

Lehen Karlistadan liberalen garai-
penak eta gobernu zentralean izan
zuen finkapenak burgesiarentzat onu-
ragarria zen hezkuntza gune bat sor-
tzea ekarri zuen. Honek guztiak 1845-
ko Pidal Plangintzaren eraketa ekarri
zuen eta plan honetatik jaiotzen gaur
egungo institutuak. Eliteen Bilbok hez-
kuntza azpiegitura berri honen jaiotza
aurkitu zuen beraien nahiei erantzuz-
nez.

**Institutu Zaharra. Lehen
urratsak Institutuzio bate-
rantz**

1845ean negoziaketa eta ahalegin
luzeen ondoren, Bizkaiko Ikastetxe
Orokorra osatzen hasi zen. 1840etik
planifikatua, bere ikasketak Valladolideko Unibertsitatearekin batzen ziren eta, 1847ko uztailaren 7an Bizkaiko Probintziako Institutu bezala izendatu zuten kategoria igoz. Hau Pidal Plangintzaren Bigarren Hezkuntzarako erreformaren antolamendua jarraituz gertatu zen.

Institutuaren eraikuntzaren iniziati- ba historikoki Bilboko eta probintziako zati haundi bateko mapa eskolarra di- seinatzeko ardura hartu zuten hiru insi- tuzio hauetatik abiatu zen: Diputazio Forala, Bilboko Udala eta Merkataritza- rako Erret Batzordea.

Asmoa zen “literatura eta arlo zienti- fikoaren ezarpena¹” izango zuen ikas- tetxe batsortzea Bilbon, eta baita gaine- rako jaurrerian ere. Modu honetan, eta hirukotearen akordio komunez, 1844an “pentsamentu moral handi hau aurrera eramanez, eta herriarentzat onu- ragarria izango zela²” azpimarratu zu- ten.

Pedro Belaunzarán arkitektua izan zen proiektua egitearen arduraduna La Cruz konbentu zaharra zegoen lurre- tan, Madrilgo gobernuak dohainik emandakoetan³. Gaur egun Miguel Unamuno Plaza bezala ezagutzen den garai hartako orubean eraiki zen zen- troa. Orduan Institututuaren Plaza beza- la izendatu zuten.

Irakasle kopuru nahikoa elkartu eta gero, 1846-47an inauguratu zen ikas- turtea. Oraindik izaera pribatua zuen, eta oraindik Bizkaiako Ikastetxe Oro- korra izena zuen, Valladolideko Uni- bertsitatearekin elkarturik.

Institutu honen garrantzia aitortu zuen Gil de Záratek⁴, Pidal Plangintza- ren egile nagusienetakoa izanik bera. 1855ean zentro honen kalitatea Euro- pako onenekin konparagarria zela onesten zen. Sustatzaileek beraiek adierazten zuten bezala, instituzio ho- nen helburua gazte bizkaitarrei jakin- duria gorpu bat emateaz, eguneroko bizitzan aplikagarria izango zena. Mo- du honetan, kutsu zientifiko eta indus- trialak eman nahi izan zitzaion zentroari, literatura eta apaingarri hutsa izan be- harrean – nahiz eta lehen urteetan aur- kako asmoak erakutsi zituzten –.

Helburu hau betetzearen asmoare- kin, oinarritzko irakasgai ez gain filoso- fia eta izaera bereziko beste hainbat gai ere antolatu ziren. Horien artean, le- kualdatu egin zituzten Kontsulatu, Merkataritza eta Nabigazioa; Matemati- kak berrantolatu egin ziren; Fisika eta Kimika aplikatuen katedrak handitu zi- ren; eta azkenik, erabat industrialak izango zen eskola bat sortzeko ideia planteatu zen. Han arlo zientifikoare- kin zerikusia zuten ikasgaiak irakatsi zi- tuzten, adibidez, marrazketa.

Institutuak probintzien eskuetatik estatuko aurrekontuen menpe izatera pasa ziren urte arte, 1887 arte, bere sor- tzearen ideien hiru sustatzaileak ar- duratu ziren zentroaren mantentze onenerako dirua jartzeaz. Diputazioak oso paper garrantzitsua jokatu zuen, neurri batean foruen eskuduntzagatik, hauek 1876an galdu baino lehen.

Bigarren Gudu Karlista bitartean, zehazki 1873an, diputazioak Institutua herizaindegi militar⁵ bilakatu zuen. Ondorioz, eskolak eraikuntzatik kan-

Institutuaren helburua gazte bizkaitarrei jakinduria gorpu bat ematea zen, eguneroko bizitzan aplikagarria izango zena.

po ematen hasi ziren eta zentroak kalte esanguratsuak jasan zituen. Bestalde, ondoan zegoen Barneko Ikastetxea inoiz ez zen berriro funtzionamenduan jarri. Gerra arrazoiengatik geldierak eta XIX. mendeko 60ko hamarkadatik zetorren barne krisiak⁶ lagundu egin zuten sozialki izen ona jada galdurik zuten instituzio honen istekarekin.

Institutuaren historian aipatu beha- rreko gertakizun bat 1888an ezarri zen Euskararen lehen katedra da. Diputa- zioak sortua izan zen eta Institutuko memorieta honako hau jartzen du: *“Bizkaiako diputazio txit gorenak, bere lur maite eta xarmangarriarekiko hainbeste maitasun frogan eman ditue- nak, Euskal Hizkuntzaren Katedra bat sortzea adostu zuen, bertakoenga- tik eta kanpokoengandik mendetan begirunez ikusiak izan diren institu- zioen erlikia agurgarri eta misterio- tsua...”*⁷.

Resurrección María de Azkueri es- kaini zioten bertako titularitate, Mi- guel Unamuno edo Sabino Arana beza- lako pertsonaiekin lehian ibili ondo- ren. Bistan denez, irakasgai hau ez zen agertzen Madrilen diseinaturiko curri- culumean, baina Institutuaren barruan “berezi” bezala antolatuak zeuden ira- kasgaien artean zegoen.

Eraikuntza berri bat Institutuarentzat

Bere bizitzan zehar, institutu zahar hau ospe handia edukitzea iritsi zen, hasieratik ezarri zituen helburuak ere arrakastatsuak izan ziren bezalaxe. Ha- la ere, urteak ez ziren alferrik pasa erai- kuntzarentzat. 70 urte baino gehiago- rekin bizkarrean, bere zahartzearen kalteak ordaintzen hasi zen. 1919an, ez zegoen hango irakasgaiak eta ikasleak jasotzeko adina gela. Instalazioak, ha- siera haietarako gokiak izan baziren

¹ ARREGUI Y HEREDIA, A.: *Memoria histórica del Instituto Vizcaíno y su colegio adjunto*, Juan E. Delmás hijo inprenta, Bilbo, 1852.

² Idem.

³ AGA: secc. E eta C Leg. 6881

⁴ GIL DE ZARATE, A.: *De la Instrucción Pública en España*, Gor-mutuen ikastetxeko inprenta, II. bilduma, Bilbo, 1855.

⁵ AGA: secc. E eta C Leg. 6932

⁶ AGA: Leg. 6529

⁷ “Memoria sobre el estado del Instituto Vizcaíno de segunda enseñanza durante el curso 1888-1889”, Est. Tip. de la viuda de E. Calle, Bilbo, 1890.

ere, garai berrietara ez ziren moldatzen. Institutua zaharkitua geratu zen.

Arrazoi horiengatik, 1920ko irailaren 1ean, Diputazioko Ikuskaritza Publikoko Batzordeko lehendakariak ofizial egin zuen eraikuntzaren eraisketa, nahiz eta oraindik berri bat eraikitzen ez hasi. Modu honetan, denbora batean, Bilboko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza Atxuriko Arte eta Lanbide Eskolan eman ziren.

Egoera hau 1927ko urriraren hasierarte luzatu zen. Urte hartan zentro berri bat hartu zuten, ordu arte Alfonso XIII Institutua bezala izendatua izan zena eta gaur egun Miguel Unamuno edo Bilboko Zentrala bezala ezagutzen dena. E raikuntzaz aldatu zen beraz, eta baita izenez ere: Bizkaiako Institutua Alfonso XIII Institutuan bihurtu zen.

1927ko urriaren 2an ireki ziren atek estreinatu berri zen Institutuan Atxuriko lokalean sarrera frogak pasa zituzten guztientzat. Institutu honetako eskolak, ordurako jadanik mistoak zirenak, txirrinaren soinuarekin hasten ziren. Ikasle neskek ikasgelako lehen leuroak betetzen zituzten. Ikasgela haue-tan 80 ikasle inguru egoten ziren. Zentro berriko lehen maila bi taldetan banaturiko 160 ikaslek osatu zuten. Lehen hiru mailak egiten zituzten horiek soilik egin ahal zuten errebalida, zenbait karreratarako sarrera posible egiten zue-na. Gehienek sei kurtsoak ikasten zituzten eta ondoren Medikuntza, Zuzenbidea, Farmazia edo Ingenieritza fakultateetan jarraitzen zituzten beraien ikasketak.

Bigarren Errepublikaren etorrerarekin, Institutuak izenez aldatu zuen berriro. Ordutik aurrera, hiru urtetan zehar, Bizkaiako Bigarren Hezkuntzako Institutu Nazionala izatera pasa zen. Orden politiko berriaren sarrerarekin, institutuaren barne bizitzan eragina izan zuen. Astebetzeskolak bertan behera uztearekin hasi zen, eta denborarekin ikasleen artean tendentzia politiko konkretu batzuk ateratzen joan ziren. Probintziako bizitza maila guztie-



Bizkaiko institutua.

tan politizatu zen eta hori hezkuntza zentroetako gelatan ere nabaritu zen. Ikasleek “monarkizatzaille” bezala izendatu zituzten taldeak sortu ziren, hau da, ikasle katolikoek taldeak – eza-gunagoak EC siglengatik -, ez ziren faltatu nazionalistak, zeinak Ikasle Euskaldunen Elkartean elkartzen ziren. Ezin gaitzeko ahaztu ezkerraldeko bezala ezagun egin ziren ikasleekin. Hauek sortu zuten FUE, hau da, Unibertsitateko Ikasleen Federazioa. Orokorrean, ikasleen gehiengoa politizazio horrentatik urrun mantendu zen⁸. Esperantza ugari ekarri zituen garaia izan zen. Planteamendu berriak ere plazaratu ziren hezkuntzaren antolamendua zela eta. Autonomia estatutuak Euskal unibertsitate baten ezarke-ta egiteko aukera errekuiperatu zuen eta horrekin batera, baita ere Bigarren Hezkuntzako berrantolaketa. Berau estatuko unibertsitate sistemaren barruan egonda ere, eta nahiz eta eskema tradizionalak errepikatzen zituen ordura arte, ez zegoen guztiz lotuta. halako batean, ordea, dena zaku puskatu batean geratu zen, lehen Euskal Gobernuaren eraketa baino hilabete batzuk lehenago Gerrate Zibila hasi baitzen.

Frankismo garaian erreforma berriak egin ziren irakaskuntzan maila honetan, bai Ruiz Giménezek 1953an egin zuenarekin oinarrizko batxilerra eta goi mailakoa sartuz, eta baita 1970ean

egin ziren Hezkuntzaren Lege Orokorrekin eta Batxilergo Bateratu eta Baloianitzarekin ere. Baina ordurako batxilergoak lehenago zuen ospea eta bereizketa galduak zituen. Herritar guztia-reei zuzenduriko batxilerra izatera pasa zen eta gisa honetarako irakaskuntzan sartzeko erraztasunak ematen ziren. Gaur egun, berriz, adin eremuaren handitzea eta 1990az geroztiko ikasketen derrigortzearekin batera, Bigarren Hezkuntza oinarrizko prestakuntzaren jarraipen gisa ulertzen da.

Institutuaren historian aipatu beharreko gertakizun bat 1888an ezarri zen Euskararen lehen katedra da. Euskara “berezi” bezala antolatuak zuden irakasgaien artean zegoen.

⁸ LAZRO TORREZ, R. M.: *Aquellos tiempos del Insti: el Instituto de Enseñanza Media de Bilbao cumple 150 años*, Beitia, Bilbo, 1997.



Alfontso XIII. institutua.

Bigarren Hezkuntzako ikasleak. Eliteetatik herritar guztiengana

Bigarren Hezkuntzako ikasleen izaera soziala aztertzeko duten ikerketek erakutsi dutenez, garbi dago batxilergo mutilentzako eskola gune sozial bezala sortua izan zela. Mutil horiek, gainera, hirigunetatik eta maila sozial erosoa batetik etorriak ziren. XIX. mendean 10etik 15 urtera bitarteko mutikoen 6% joaten zen normalean. Egoera hori XX. mendean aldatzen joan zen, oinarriko hezkuntzaren ondorengo ikasketen definizio ezarekin batera. Izan ere, ikasketa horiek ikasketa profesionalen edo unibertsitatearen arabera banatuta zeuden.

Hezkuntza maila honetan ikasleak onartzeko aukeraketa gutxienekoa eta pixka bat bereizketarik gabekoa zen, batzuk adinez goiztiarregiak zirelarik. Kasu horietan gelaren prestigio sinbolikoarekin justifikatua geratzen zen eta ez jasotako jakintzarekin. Garrantzitsuena bigarren hezkuntzako mundu ponpoxotik "pasatzearen erritotik" igarotzea zen.

Egoera modu berdinean mantendu zen gutxi gorabehera pasa den mendeko 60ko hamarkada arte. Bizitza kalitatearen hobekuntzak eta garapen plangintzek prestakuntza hobea eta espezializatua behar zuen belaunaldi berria ekarri zuen. Eliteen batxilergo herri guztiari bideraturiko batxilergoan bihurtu zen.

Bestalde, Institutuari dagokionez, irakasleen ospeak eta institututik pasatako hainbeste ikasleren oroitzen onek beti kokatu izan dute zentro hau maila altuko zentro bezala. Honela,

bertako ikasle edo irakasle izan diren zenbait pertsonaia famatu izendatu ditzaizkegu: Miguel de Unamuno, gaur egungo institutuari izena eman diona; Telesforo de Aranzadi antropologoa; Julio de Urquijo e Ybarra, Gorteetako diputatua eta Euskal Ikasketen nazioarteko aldizkariaren eta Euskal Hizkuntzaren Akademiaren sortzailea; Resurrección Maria de Azkue Euskararen lehen katedraduna eta Euskal Hizkuntzaren Akademiko sortzaileetakoa; eta hainbat politikari, intelektual, irakasle eta beste gisa askotako profesionalak.

Urte askotan zehar, gisa honetako irakaskuntza bereziki mutilei zuzendutakoa izan da, nahiz eta emakumeei sarrera debekatzen zien arautegirik ez egon. 1911ko ekainean lortu zuen le-

Institutuari dagokionez, irakasleen ospeak eta handik pasatako hainbeste ikasleren oroitzen onek beti kokatu izan dute zentroa maila altuko bezala.

hendabiziko aldiz emakume batek Batxilergo titulua, nahiz eta erregistraturiko lehen ikasle neska 1897-98koa izan. Hori dela eta, XX. mendeko lehen herenean nesken matrikulazio eskasia iraunkorra izan zen. Denborarekin igotzen joan zen emakumeen sarrera gisa honetako ikasketetan. Zentroaren aldatzarekin nesken zenbakia nabarmenki hazi zen Gerra Zibila hasi aurretiko azken ikasturtean institutuko zerrendetan 266 neska zeuden izena emanda. Frankismoarekin eta berehezkidetzaren aurkako hezkuntzaren legearekin, Institutuak egoera berrira moldatu behar izan zuen. 1943an erakuntza beraren barruan neska eta mutilen arteko bereizketa egin zen. 1965ean egin zen behin-betiko banaketa eta Martin de Bertedona Nesken Institutua sortu zen, erakuntza berean bi sexutako ikasleak egoteak sortzen zituen arazoak ikusirik. 1982 arte ez zentalde mistorik izan Institutuan.

Institutuaren argazki txiki honek ikusarazten digu gaur egungo Miguel Unamunok ez duela zer ikusirik XIX. mende erdian sortu zen, hasiera hartako erakuntza ponpoxo harekin. Baina egia da Bizkaiko bizitza kulturaleko fenomeno iraunkor bat izan dela zentro hau urte hauetan guztietan. Belaunaldi belaunaldi, Institutua bizkaitar ugariaren bizitzaren parte izatera iritsi zen, hezkuntza etapa baten maila gorena adierazgarri izan zelarik, hain zuzen ere oraindik gaur egun ere definizio baten bila dabilen eta etengabeko berrikuntzak eskatzen dituen hezkuntza sistema honen adierazgarri. Gaur egun, Bigarren Hezkuntzak zein funtzio eta zein helburu bete beharko lituzkeen galdetzen diogu geure buruari, baina horrek ez die ez pisurik ez garrantziarik kentzen Bizkaiko Institutua bezalako zentroei, zeinak 150 urte baino gehiago daramatzaten bere funtzioa ahal duten modurik onenean egiten. Bigarren Hezkuntza modernoaren garapena eta genesis errepresentatzen duen zentrorik egon bada oraino Bizkaian, hori, Miguel Unamuno Institutua da. •